

HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOAREN

HEZKUNTZAREN KALITATE-LEGERAKO

OINARRI DOKUMENTUARI BURUZKO

EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAREN

TXOSTENA

*2002ko apirilaren 24ko Osoko Bilkuran onartua*

## **I. Kapituluua: HEZKUNTZAREN KALITATEAZ**

### **Hezkuntzaren kalitatea. Euskadiko Eskola Kontseiluaren Ikuspegia.**

Euskadiko Eskola Kontseiluak gogoeta anitz egin ditu hezkuntzaren kalitateaz eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistemaren kalitateaz. Orain kontsulta bat jaso da "Hezkuntzaren Kalitate-Legerako Oinarri Dokumentua" deritzan Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioaren dokumentuaren edukiari buruz, epe laburrik barne erantzun beharrekoa eta galdetegi gisa antolatuta garrantzitsuenak diren edota aurreko antolamenduaren aldean aldaketa handienak dakartzaten puntuen gainean. Txosten honek koherentea izan behar du Euskadiko Eskola Kontseiluak orain arte euskal hezkuntza sistemaz eta haren kalitateaz egin dituen balorazioekin, eta, partikularki, "Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzaren egoerari buruzko txostena (1994-2000)" izeneko dokumentuan adierazita ditugun iritziekin.

Txosten horretan hezkuntza kalitateari buruz jasota dauden erreferentzia nagusiek ikuspegi aurpegi-anitz eta konplexu bat osatzen dute, gizarteak hezkuntza sistemari pausatzen dizkion eskakizunei sistemak ematen dizkion erantzunen araberakoak. Ikuspegi hori honela dago jasota 1.5. kapituluan:

*"Urte asko da jadanik euskal gizartea sinestuta dagoela eskolako hezkuntza aurrerapenerako bide egoki eta beharrezkoa dela gizartearentzat eta gizabanakoentzat. Ikuspegi horren eraginez hainbat ekimen abiatu dira, proiektu bizkor asko gauzarazi dituztenak. Era berean, eskolaren ahalmenei buruz dagoen konfiantza horretatik heldu dira hezkuntza sistemari egiten zaizkion hainbat eskakizun, batzuetan lausoak eta are kontrajarriak, eta behar bezala erantzuten ez direnean holako inpotentzia eta frustrazio sentipen bat sortarazten dutenak. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzaren egoera aztertzean, funtsezkoa da jakitea zeintzuk diren gizarteak hezkuntza instituzioari egiten dizkion eskariak eta nola eta zein neurritan erantzuten dien honek haiei.*

*Ikasle guztiek ikaspostu bana izatea 70. hamarkadaren erditsuan lortu zen, hain zuzen ere eskolaume populazio handiena izandako garaian. Geroztik, eskakizunak beti izan dira hezkuntza kalitatea hobetzearen aldekoak.*

*Lehenbiziko eskakizunak irakaskuntza gauzatzeko baldintzei dagozkie: ikasle gutxiago izatea ikasgelako, irakasle gehiago izatea taldeko, hezkuntza gastuak emendatzea hobetu daitezen ikastetxeak, hezkuntza ekipamenduak, zentroen gastu ahalmenak.... Guztiarekin ere, beti aztertu beharko da giza-baliabide eta eskuarterik aski egon ote den eta, batez ere, jakin izan ote den horiek optimizatzen irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko.*

*Beste eskakizun batzuk irakasleen lanari dagozkio: irakasleen arteko koordinazioa hobetzeko neurriak, lanean ari diren irakasleen prestakuntza,*

*irakaskuntzaren berrikuntza eta irakasleendako laguntza eta aholkularitza zerbitzuak hala ikastetxe barruan nola kanpoan.*

*Hirugarren eskakizun mota bat da ikasle guztien beharrianei erantzuteko ahalmenari dagokiona, edozelakoak izanik ere ikasleen beharrianak. Hezkuntza sistema baten kalitatea neurtzeko adierazleetariko bat, sistema horrek hezkuntza beharriaren bereziak dituzten ikasleak atenditzeko daukan gaitasuna da, edozelakoa izanik ere beharriaren horren arrazoia. Hezkuntza eskubidea unibertsala baldin bada, orduan nahitaezkoa izango da ikasleak dituzten hezkuntza beharriaren bereziei erantzutea.*

*Euskal Hezkuntza Administrazioa eskakizun horiei erantzuten ari da. Eskakizun berriak beste arlo batzuei dagozkie: irakasgaiak eta prozesu didaktikoak.*

*Euskal gizarteak oraindik garrantzi handia ematen dio ikasketa kognitiboari. Denak ados daude 70. hamarkadaren hasieran abiatu zen krisi ekonomiko eta sozial latza gainditzeko ezinbestekoa dela belaunaldi berriek gero eta prestakuntza hobea izatea, giza-baliabide hobe eta hobeki prestatu bat izateko. Lanbide Heziketak gero eta irudi hobea dauka gizartean eta berreskuratzen hasi da Euskal Herrian galdua zeukan ospea. Ekoizpen sistemak jende profesionalak behar ditu, ezagupen polibalentez jantziak, etengabeko aldaketa teknologikoetara egokitzeko gauza direnak eta kalitate maila gero eta handiagoko ekoizpen prozesuetan diharduten lantaldeetan aritzeko gauza izango direnak.*

*Bestalde, informazioaren gizarte berriari eskolari eskatzen zaion beste gauza bat da egoki jantzi dezala ikaslea, izan dadin gauza erabiltzeko hainbat iturritatik heldu den informazioa bereganatzeko behar dituen tresna eta ezagupenak, eta berdindu ditzala arlo horretan mota ezberdinetako ikasle-taldearen artean dauden ezberdintasunak. Eskakizuna da derrigorrezko hezkuntzan ikasle guztiek izan dezatela behar diren ezagupenak informazio eta komunikazio teknologietara hurbiltzeko, dela eskola edukiak teknologia horien bitartez edo laguntzaz ikasteari begira, dela ikasleak etorkizunean funtsezkoak izango dituen hizkuntza eta tresna horiek menperatzeari begira.*

*Europako integrazioak eta nazioarteko globalizazio ekonomiko, sozial eta kulturalak berekin dakar hizkuntzen ikasketa hobetu beharra. Ez da hori ordea prozesu orokortzaile horren ondorio bakarra: eskola multikulturalaren beharra era baitakar, hots, kultura anitzez osatutako gizarte ireki eta askotariko bat eraikitzeko eta gizakiak mundu mailan dituen arazoez arduratzeko gauza izango den eskola bat sortzeko beharra. Kultura anitzeko gizarte batean bideak ezarri behar dira, gizabanakoen kultur eta hizkuntz nortasunetik abiatuz, kulturen arteko harremanak finkatzeko*

*Gizarteak eskatzen du hezkuntza zabalduz eta handituz hiritar guztiek izan dezatela, derrigorrezko hezkuntza burutu ondoren, behar diren jakitate eta ezagupen guztiak bakoitzak bere burua garatzeko eta gizartearen bizitzan eta ongizatean parte hartzeko.*

*Era berean, nahi da eskolako ikasketak ez daitezela izan bakarrik ezagupenak bideratzeko, baizik eta baita ere ikasleen prestakuntza moral eta zibikoa aitzinatzen. Ez dela hain aspaldi, elementu horiek beste instituzio sozial batzuen bitartez helarazten zitzaizkien ikasleei, familiaren bidez batez ere, eta eskolaren lana izaten zen lehen mailako sozializazio horretatik abiatuz bere bigarren mailako sozializazio lanari ekitea. Orain aldatuta eta ahulduta dago harako instituzio sozializatzaile haien papera eta orain, herri handietan, eskola behartuta aurkitzen da sozializazio prozesu osoa bere gain hartzera, lehen mailako sozializaziotik hasi eta kontzientzia zibiko eta morala garatzeraino. Eginkizun hori eskolan burutu nahi izaten da, baina askotan ezinezkoa da baldin ume-gazteen bizitzaren beste esparru batzuetako instituzioek laguntzen ez badute.*

*Eskatzen zaio eskolari lagundu dezala kohesioa sortzen eta elkarbizitzako baloreak irakasten, bereziki euskal gizartean, eta horiek izan daitezela hezkuntzaren iparra. Helburu hori betetzeko, beharrezkoa da eskolako elkarbizitza balore jakin batzuen gainean oinarritzea: berdintasuna, askatasuna, justizia, partaidetza eta elkarrizketa demokratikoa gatazkak konpontzeko bide bezala.*

*Gehienen ustez, eskolak helburu horiek diskurtso eta praxi koherente baten bidez mamitu behar ditu. Horregatik hain zuzen egin da apustu eskola egiturak integrazio kontzeptuan oinarritzeko, eta ez ikasleen aukeraketan edo sailkapenean --behintzat eskolako fasean-- gizarte demokratiko eta moderno bati dagozkion oinarritzeko ezagupenak ikasleari helarazterakoan.*

*Euskal hezkuntza sistema oso dibertsifikatua da: baditu eskola sare bi, hiru hizkuntza eredu eta, esan gabe doana, ikastetxe bakoitzean gauzatzen diren bide bereziak. Aniztasun hori oro har positibotzat jotzen da, aukera gehiago ematen baitie familiei. Hala ere, ukalezina da hain dibertsifikatuta dagoen hezkuntza sistema batek arazoak izan ditzakeela gizarte kohesioa sendotzeko, nahiz eta horixe izan hain zuzen ere hezkuntzaren helburu nagusietariko bat.*

*Aukeratzea zein eskolara bidaliko diren seme-alabak da familietan hartzen den erabaki garrantzitsuenetariko bat. Hortxe ageri da prezeski --indarrean dauden hezkuntza teorien ildotik-- ikastetxeek daukaten garrantzia. Familiek, ikastetxe bat aukeratzean, seme-alabek dituzten beharrezko eta nahikariak betetzeko zentro bakoitzak daukan ahalmenari begiratzen diote eta, ondoren, arabarako hautua egiten; beharrezko horien artean sartzen dira, kurrikulumeko gaiak irakasteko zentroak izan behar duen gaitasunaz gain, eskaini behar duen segurtasuna (zentzu zabalean) eta gizarte harreman egokiak.*

*Familiek gero eta gehiago baloratzen dituzte ikastetxeek eskaintzen dituzten zerbitzu osagarriak. Eskatzen zaie ikastetxeei irakaskuntza lan informalago eta zehaztugabeago bat eman dezatela irakaskuntza formal eta arautuaren osagarri. Kirol eta aisialdi instalazioak, liburutegia, informatikako gela... horiek guztiak zabalik egon behar dira ikaslearentzat --batez ere gizarte ingurumen prekarizatuetatik datozen edo gurasoak eskola orduz kanpo etxean ez dituzten ikasleentzat--, hala egunaren hasieran, bazkari orduan, nola eskola eguna amaitu ondoren.*

*Partaidetza, hala organo kolegiatuetan edo guraso-elkarteen bitartez, ikastetxeen kalitatea hobetu dezakeen faktorea da. Ez dago dudarik gurasoek euren seme-alaben hezkuntzan hartzen duten eskuak eta dituzten igurikapenek eragin zuzena duela ikaslearen eskola-arrakastan.*

*Kalitatea hobetzeko gizarteak formulatzen dituen eskariak behartu egiten dute hezkuntza sistema mekanismo batzuk izatera hobekuntza hori gauzatzeko. Mekanismo horien artean nagusi da ebaluazioa, hala ikastetxeek eurek egin behar dutena nola Hezkuntza Administrazioak gabeziak detektatu eta behar diren hobekuntzak bultzatzeko egin behar duena.*

*LOGSEren eskutik sortu zen Ebaluazio eta Kalitaterako Institutu Nazionala (EKIN), Hezkuntza Ministerioaren menpeko organikoa; bere Errektoretza Batzordea hezkuntza arloan eskumenak dituzten Komunitate Autonomoetako Hezkuntza Saitetako ordezkari osatua dago. Erakunde horren lana da Espainiako hezkuntza sistema ebaluatzea hezkuntzaren fase guztietan eta sistemaren oinarriko alderdiei begira. Komunitate Autonomo bakoitzak eskua du bere esparru geografikoan lagina zabaltzeko eta baita ere kontsultatu nahi diren gaiak emendatzeko. (o.c., 43-46)*

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ere erakunde ebaluatzaile bat sortu du Hezkuntza Ikuskaritzaren ebaluazio lana osatzeko. Ebaluazio eta Ikerketarako Euskal Institutua (EIEI) da erakunde horren izena.

## **Diagnostikoaren balorazioa**

Hezkuntzaren kalitatea bermatzeko Euskadiko Eskola Kontseiluak betidanik erabili duen harako ikuspegi aurpegi-anitz haren ondorioz, oso kritikoak gara Hezkuntzaren Kalitate-Legerako Oinarri Dokumentuarekin, hain zuzen ere dokumentu horretan egiten den diagnostikoa oso murriztailea delako eta ez daukalako oinarrian egungo hezkuntza sistemari buruzko inolako ebaluazio serio eta zintzorik.

Eztabaidagarria da ez duelako zehazten erabiltzen duen kalitate kontzeptua; badirudi emaitzei begiratzen zaiela batik bat, hezkuntza sisteman prozesuak ere aintzat hartu behar diren arren.

Euskal hezkuntzaren munduan kalitatea jende, lantalde, elkarte, instituzio eta abar askoren lanaren helburua da. Oro har, zilegi da esatea euskal gizartean eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sisteman kalitatea izango dela datozen urteetako erronka nagusietariko bat.

Testuinguru horretan, bihotza erortzen da irakurtzen denean "Hezkuntzaren Kalitate Lege" bat izan nahi duen dokumentu bat hain zehaztasun gutxikoa, inolako ebaluaziotan oinarritu gabeko balio-juzkuz eta orokorkeriaz hain betea, hezkuntza arloko arazo guztiak nahas-mahas hartzen dituen zakutzarraren antzera moldatua eta Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioak bere kasa eta inoren laguntzarik gabe egina.

Deigarria da Oinarri Dokumentuaren ikuspegiaren ezezkortasuna. Ematen du hezkuntza sistemaren alderdi ezezkorrak baizik ez dituela azpimarratu nahi, egin nahi diren aldaketak zurrizteko. Etorkizuneko ekintzak planifikatzerakoan komenigarria izaten da beti abiapuntuko egoeraren balantzea egitea, baina balantze horretan ez dira agertu behar bakarrik akatsak (zuzenduak izateko); aitzitik, lorpenak ere azaldu behar dira, indartuak izan daitezzen eta akuilu lana egin dezaten ondoren abiatu beharko diren ekintza berrientzat.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, iragan hamar urtean ahalegin gaitza egin da eskola mapa adosteko, instalazioak egokitzeko, arautegia garatzeko, kurrikuluma osatzeko, ezberdintasunei atentzioa emateko, irakasleak euskalduntzeko eta irakasleei behar zuten prestakuntza ematera bideratutako ikastetxe proiektu berritzaileak burutzeko; ahalegin horretan inbertsio ekonomiko handia egin da eta hezkuntza sisteman inplikaturako sektore guztien ekarpen eta laguntza izan da.

Emaitza akademikoei buruzko datuak ez dira nahikoak oraindik. Une honetan beharrezko da ikastetxeen eta sistemaren ebaluazio serio bat egitea. Bakarrik ebaluazio prozesu serio baten bidez jasotako datuak eskura ditugunean izango gara gauza diagnostiko bat egiteko eta adostu ahal izango dugu zeintzuk diren hobetu beharreko esparruak.

Arte hartan, Oinarri Dokumentuan egiten diren aipamenei ezin eman dakieke benetako diagnostiko baten baliorik. Azter ditzagun aipamen horietako batzuk, adibide gisa:

- Hala dio Dokumentuak: *"bada datu bat sistemaren akatsak erakusten dituena eta Europako herrialde aurreratuenetatik zeharo urruntzen gaituena: gure eskola-porrotaren tasa. Onartezina da Espainiako ikasleen %25ek baino gehiagok ez lortzea Bigarren Hezkuntzako Eskola Graduatua, Europako beste herrialde batzuetan tasa hori askoz txikiagoa denean"*. Eta honela jarraitzen du: *"Gure irakasleak Europako herrialde aurreratuetako batzuetan indizetik beherago daude irakurmena, idazmena eta matematikak bezalako irakasgai oinarritzkoetan"*. Baieztapen horien aurrean Eskola Kontseiluak adierazten du, lehengo eta behin, kontuan hartu beharko dela --baita ere-- komunitate autonomoen arteko aldea. Era berean, adierazten du "lehen lerroan" ez egoteak ez duela ez kalifikatzen eta ez deskalifikatzen herrialde edo komunitate bat. Ikasleek mintzo garelarik sarri esaten dugun bezala, baloratu behar dena abiapuntuko egoera da, egoera hori aldatzeko egindako aurrerapena, eta prozesu horretan ezarritako ahalegina (gizabanakoarena, gizartearena eta instituzioena). Hori bai dela prozesu arazo bat.

Ontzat jo liteke esatea biztanleriaren %25etik gorako eskola-porrota indize bat gauza onartezina dela. Hori arazo larria da eta indize txikiagoa balitz ere berdin larria izango litzateke. Gainera, ez dago argi "Europako beste herrialdeetako" datuen kontu hori. Datu isolatu eta testuingurutik ateratakoak erabiltzea sobera trikimailu dorpea da. Adibidez, Espainiako eskola emaitzen datuak Europako beste herrialdeetakoekin konparatzen direnean, ez legoke gaizki erantsiko balitz herrialde horietako bakoitzak hezkuntzan eralgitzen duen BPGren portzentajea. Ez legoke gaizki, ezta ere, emaitza horiek azken hamar urte honetan izan duten bilakaeraren datuak emango balira, jakiteko non kokatu behar dugun "eskola-porrota" delakoaren arazoa. Hezkuntza sistemak dauzkan arazoak honelako azalderiaz aztertzea arduragabekeria latza da alde guziz, eta errespetu falta gorria erakusten du hezkuntza komunitate osoarekiko.

Bestalde, hezkuntza sistema batek bere helburuak finkatzerakoan posible badu ere beste hezkuntza sistemen erreferentzia erabiltzea, funtsean bere diagnostiko propioari begiratu beharko dio eta eskuan dituen baliabideekin aritu beharko da. Konparazioak egitekotan, eskola-porrota eragiten duten aldagai guztiak hartu beharko lirateke kontuan, ez bakarrik emaitzak. Aldagai horien artean bereziki garrantzitsuak dira hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta arazo gehien dituzten ikasleak ikastera berotzeko egiten diren inbertsioak.

Nolanahi ere, eskola-porrotaren indize horrek benetako arazo bat islatzen du, eta arazo horri aurre egin behar zaio. Bizkitartean, datu hori, berez, ez da nahikoa erabakitze hezkuntza sistema aldatu egin behar den ala nahikoa izango den hobekuntza batzuk sartzea. Datu bat egoki baloratzeko, aurreko datuekin edo antzeko beste datu batzuekin konparatu behar da. Ebaluazio eta Kalitaterako Institutu Nazionalak (EKIN) 1995 eta 1999ko Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta 1997 eta 2000ko DBHko 4. mailan egin dituen ebaluazioek erakusten dute orokorrean emaitzak hobetu egin direla, eta nabarmenki halere ikastetxe publikoetan eta maila soziokultural txikieneko ikasleen artean. DBHko 4. mailak, OHOk 8.ak lortutako arrakasta indize berdina edo handiagoa izan du, eta BBBko 2. eta LH1eko 2. mailek baino puskaz handiagoa (azken bi maila horietan gaur egun DBHko 4.an dabilzan adineko ikasleak sartzen dira), eta hori kontatu barik 15 eta 16 urteekin jadanik eskolatu gabe zegoen populazioa. Beste datu batzuek joera baikor berbera adierazten dute. PISAren ebaluazioak erakusten du hobetu egin dela Espainiak testu ulermenean eta matematiketan zeukan postua ELGAren (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) azken ebaluazioaren aldean (30. postutik 18. postura igaro baita). Aurrerapen horren sustraia faktore sozial zein eskola faktoretan bilatu behar da. Ebaluazio horrek erakusten du, gainera, Espainiak postu bertsua daukala maila kulturalari dagokionez eta maila ekonomikoari dagokionez.

- Hala dio diagnostikoaren beste datu batek: *"begi-bistakoa da zapuztu egin dela ikastetxe eta ikasgeletako elkarbizitza eta ahalegin giroa"*. Kontseiluak ukatu edo, gutxienez, errotik matizatzen du baieztatzen hori.

Honela deskriba liteke Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako elkarbizitza egoerari buruz Euskadiko Eskola Kontseiluak --bere eskumenen barruan sartzen diren etapetan-- daukan iritzia: ikastetxeetako elkarbizitza giroa normala da, batez

ere Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan.

LOGSEren ondorioz etorri den Erreforma aplikatzen joan den neurrian tirabira batzuk suertatu dira Bigarren Hezkuntzan, batez ere DBHren bigarren zikloan eta Batxilergoan (derrigorrezko eskolatzeko adina 16 urteetara luzatzearen ondorioz). Tirabira horiek nabarmenagoak izan dira hiri handietako periferiako A ereduko ikastetxe publikoetan, hots, ingurumen sozial behartsu batetik datozen ikasle multzo bereziki handiak dituzten ikastetxeetan. Ikasleek agertzen dituzten motibazio arazoek, eskola-porrotaren arazoek, eta hala ikastetxeek nola irakasleek ustekabeko egoera berrietara egokitzeko daukaten premiak eragin du ikastetxe eta ikasgela batzuetako elkarbizitza giroa nahasiagoa edo okerragoa izatea.

Badira faktore batzuk lagungarriak suertatu direnak lankidetzakultura bat sortzeko eta eskolatzeko elkarbizitza gozatu eta hobetzeko; honako hauek, esaterako: irakasleak Bigarren Hezkuntzako etapa berriko ikastetxeetako postuetan finkatu izanak, irakasleek euren burua Erreformaren eskakizunetara egokitu izanak, irakasleek hezkuntza erantzukizun gero eta handiagoak onartu izanak, Bigarren Hezkuntzako klaustroetan esperientzia profesional ezberdineko eta elkarren osagarriko irakasleak elkarrekin aritu izanak, Ikastetxeko Proiektu Kurrikularra prestatzen hasiak diren ikastetxeetan egiten ari den programazio ahaleginak, arazo puntualak elkarbizitza eta partaidetza gehiagorekin konpondu behar direlako sentipena izateak, eta abar.

Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko ikuspegi dinamikoak irakasle asko eraman ditu gatazka-iturri potentzialak alde aurretik prebenitzen saiatzera, baloreen irakaskuntza sakontzera eta elkarbizitza hezkuntzaren helburu garrantzitsu bat bezala zaintzera.

Gaur egun zilegi da esatea egoera hobetzen ari dela, nahiz eta badiren oraino tentsio gune zenbait, batzuk ikastetxe barruan sortzen direnak eta beste batzuk berriz kanpotik heldutakoak mota askotako intimidazioen eraginez: koadrilen arteko borrokak, gutxiengoaren integrazioa, bortizkeria politikoa.

Hala ere, Oinarri Dokumentuaren arabera "*ikastetxeen funtzionamendua larriki oztopatzen ari den*" ikastetxeetako elkarbizitza-giroaren zapuzketa ez litzateke aitzakiatzat hartu behar hezkuntza komunitatearen eskubide-eginbideak aldatzeko eta diziplina bortitzeko sistema bat ezartzeko. Holako aldaketa bat ikasleek nozituko lukete lehenik, dudarik gabe, baina gurasoek eta irakasleek ere bai.

Ikastetxe bakoitzak programatu egin beharko du elkarbizitzarako hezkuntza. Egokitu egin beharko du bere eskola antolaketa. Elkarbizitza ikasten baita elkarbizitzen, ikastetxeetan berebiziko garrantzia daukate elkarbizitza modu positiboan arautzen duten elementu guztiek: ikastetxeko bizitzan parte hartzen duten lagunen eskubide-eginbideak, elkarbizitzako arauak, gatazka konpontzeko sistemak, erabakiak hartzeko partaidetza mekanismoak, botere eta erantzukizun banaketak, bilkurak osatzeko aukerak, organo kolegiatuaren funtzionamenduak, denbora-lekuak erabiltzeko eta banatzeko irizpideak...

Zentzu horretan, ikastetxe bati gutxienik eskatu dakiokiena da elkarrekin koherenteak (kontrajarriak barik) izan daitezela bere antolaketa eta zabaldu nahi



dituen baloreak (partaidetza, elkartasuna, lankidetzak, kontzientzia kritikoa, akordioak bilatzea...). Eta erabili dezala horretarako eskura dituen tresnak: antolakuntza eta funtzionamendu erregelamendua, organo kolegiatuak, tutoretza orduak, batzarrak eta asanbladak... Esperientziak hauxe erakusten du: ikasleak zenbat eta gehiago parte hartu, hainbat arazo gutxiago. Ikastetxeko bizitzan ikasleak zenbat eta gehiago inplikatu, hainbat erantzukizun pertsonal eta kolektibo gehiago hartuko dute. Horrek gauza bat esan nahi du, hots, ahotsa eta boterea eman behar zaiela eta leialtasuna eskatu.

Baloreen irakaskuntzak zeharkakotasun izaera duenez, ikasgela edo etapa jakin bakoitzetik igarotzen diren irakasleek berebiziko aurreikuspen eta koordinazio lan bat egin behar dute guztiek aplikatu ditzaten gune horietan pertsonen errespetuan oinarritutako harremanak; orobat, balore horiek irakaskuntza eta ikasketa prozesuen helburu eta eduki izan daitezten. Irakatsi egin beharko dira giza eskubideak, askatasuna, justizia, tolerantzia aktiboa, sexu, etnia, erlijio eta mintzaira diskriminaziorik eza, interkulturalismoa, elkartasuna, batez ere ahulenen aldekoa... Gai horiek ez dira irakatsi behar ezagupen teoriko hutsak bezala, baizik eta jarrera eta portamen tolerante eta solidarioak bezala ere bai.

Baina baloreak irakasterakoan edukiak, estiloa, giroa eta programatutako ekintzak garrantzitsuak badira ere, berdin garrantzitsua da garapen kurrikularra eta irakaskuntza ikasleen aniztasunari egokitzen jakitea. Frustrazioa eta agresibitatea izan ohi dira eskola-porrotaren ondorio jakina. Ikasleak eskolako lana atsegina kausitzen duenean goxatu egiten dira tirabirak. Irakaskuntzaren helburu eta ekintzak ikasleen ahalmen, interes eta igurikapenei egokitzea ez da bakarrik hobeto ikasteko bidea, baizik eta ikasleen egonkortasun emozionala eta elkarbizitza ona bermatzeko bidea ere bai.

- Dokumentuak honako faktore honi egozten dio arazo askoren errua: *"irakaslea desprestigiatuta dago eta gogorik eza eta barneko histura dabiltza nagusi irakasleen artean"*. Eskola kontseiluak ez du onartzen formula absolutu hori eta zuzenketak egiten dizkio.

Ados gaude baieztapenaren zati batekin: irakasle zenbaiten artean nagusi dabiltzala gogorik eza eta barneko histura.

Desados gaude desprestigioari dagokion zatiarekin, baina arazoa zein ikuspegitik aztertzen den, halako ñabardurak egiten zaizkio. Batzuentzat, irakaslea eskolaz kanpoko arrazoiengatik dago desprestigiatuta. Eskolaz kanpoko faktore orokor batzuen indarrez irakaslearen autoritatea erlatibizatu egin bada ere (gizarteko autoritate figura enparauak erlatibizatu diren bezala), horrek ez du esan nahi irakaslearen irudia zeharo desprestigiatuta dagoenik. Dokumentuak ez dakar inolako daturik fenomeno horri buruz, ez justifikaziorik eta ez azalpen zientifikorik ere. Era berean, ez du esaten zergatik gertatu den desprestigio hori, arrazoi horren inguruan gero lan egin ahal izateko. Irakasleek ez dute nabari gizarteak estimutan dauzkanik, baina Oinarri Dokumentua premisa katastrofista batzuetatik abiatzen da, nonbait errudunak sistema, irakasleak eta ikasleak balira bezala. Bide horretatik nekez hobetuko da hezkuntza, horretarako beharrezkoa baita irakasleek

sentitzea estimatu egiten zaiela egiten duten lana eta ikaslea akuilatua senti dadila beragan ezartzen diren igurikapen edo esperantzen indarrez.

Batzuk beldur dira Oinarri Dokumentuan Administrazioak proposatzen duen konponbidea ez ote den izango irakasleen prestigioa autoritate mekanismoak sendotuz hobetu nahi izatea. Badirudi irakasleen lana prestigiatzeko eta gizartearen ezagutza handitzeko Oinarri Dokumentuak proposatzen duen gauza nabarmenena dela ibilbideak ezartzea eta *"errekuperazioaren eta ahaleginaren kultura"* sartzea, hau da, azterketa gehiago jartzea eta irakasleei autoritate gehiago ematea ebaluazio berezituaren bitartez. Litekeena da irakaslearen autoritatea indibidualki –hots, bere lantaldeetik aparte-- sendotzeko ahalegin horren medioz, bilatzen den ondorioa ez baizik eta kontrakoa lortzea, irakasle bakoitza bere lankideen laguntzarik gabe uzten den neurrian.

Erabat desados gaude irakasleen irudiaren desprestigioa, batetik, eta irakasleen gogogabetze eta barneko histura, bestetik, kausa-ondorio harremanean ikusi nahi izatearekin.

- *"Gaur egun Zuzendariak ez dauka eskumenik ikastetxeko funtzionamendu egokirako behar diren baldintza behinenak ezartzeko"* dioen diagnostikoari dagokionez, era guztietako iritziak adierazi dira, aldekoak eta aurkakoak barne.

Kontseiluak onartzen du errebisatu egin behar direla zuzendariaren eginkizunak, baina ez Dokumentuak esaten duen moduan.

Zuzendaritzaren arazo garrantzitsuena ez da baldintza behinenak falta zaizkiola, beste batzuk baino; esaterako, hezkuntza sektore guztiak integratu eta dinamizatze ikastetxe proiektu operatiborik eza.

Oso kontuz ibili behar da Dokumentuak egiten duen diagnostikoaren alderdi honetatik eratorri litezkeen ondorioekin. Zuzendariaren lana profesionalizatu egin nahi da, eta zuzendaria berriz Administrazioak ikastetxean duen ordezkari hutsa nahi da bihurtu.

- Aitzakia edo estakuru gogorrak egiten zaizkio Oinarri Dokumentuaren beste adierazpen honi: *"Aitu eta irakasle gehienek ia erabat ados daude iritzi honetan: gaur egungo hezkuntza ereduak bidea ematen duenez behar diren ezagupen eta trebetasunak iritsi gabe ere ikasturte batetik bestera igarotzeko, huts egiten dio ikasleei, familiei eta gizarte osoari; arrakasta supitu, erraz eta ahalegin gabekoa lortzeko ohitura sortzen du, eta horrek ezadaptazio arazo larriak ekarriko ditu gazteek eguneroko bizitzaren eta gizarte eta laneko bizitza exijentziaz bete eta lehiakor baten betebeharrak eta erronkak buruzkatu behar dituztenean"*.

Uste dugu hor aipatzen diren iritzigileen erreferentziak ez direla zuzenak: ez adituek eta ez irakasle gehienek ere daukate hain iritzi zehatz eta bateraturik hain gai delikatu bati buruz, egia izan arren noski sektore jakin bat iritzi horretakoa dela.

Hezkuntza arloko gaiak jorratu eta aztertzeko eztabaidagune askotan justifikatzen da, eta ikastetxeetako ebaluazio batzorde askotan modu arrunt eta espontaneo batean praktikatu ere egiten da, promozioari buruzko erabaki-hartze mota bat honako faktore sorta hau guztia aintzat hartzen duena: gutxieneko gaitasun batzuen eskurapena, gizabanakoaren garapenaren bilakaera, taldeko sozializazioa, ohartutako hutsuneak konpontzeko edo azkar garatzeko aukerak, eta abar. Hitz batez, irizpide sorta bat, ez automatismo sorta bat, erabiltzen da ikasturteen promozioari buruzko erabakiak hartzeko edo ikasturtea errepikarazteko dauden neurri arrunt zein bereziak aplikatzeko.

Guztiarekin ere, ikasleek ikasteko ahalegin gutxi egiten dutela gauza jakina eta frogatua da. Ahalegina gauza beharrezkoa da edozelako lanetan, eta baita ere ikasketetan, baina ezin kontrajarri daitezke ahalegina eta lanaren atsegina eta ezin esan daiteke ahalegina denik ikasteko bide bakar edo nagusia. Holakorik dioena ukatzen ari da jolasak, familian edo gizartean parte hartzeak edo telebistak daukaten balio hezitzailea.

Sinplekeria da esatea promozio automatikoa dela ikasleen ahaleginik ezaren arrazoi bakarra. Ikasturtea errepikatzea ez da bide bakarra --hobea ere ez—egoera horretara iristeko. Gure ustez, funtsezkoa da ikasturte batetik hurrengorako pasaeran irizpide pertsonalizatuak aplikatzea, eta ez ezagupen eta trebetasun sorta estandar bat. Etengabeko ebaluazioak lagundu egin behar dio ikasleari ikasturte bakoitzean ezagupen kontrol guztiak gainditzeko eta hurrengo kurtsora igarotzen.

Desados gauden arren Dokumentuak egiten duen diagnostikoarekin, kontua da hura onartuko balitz konponbidea hauxe izan beharko litzatekeela: bitarteko gehiago eta hobekia edukitzea, ikasleek ez dezaten ikasturtea bukatu ezarri zaizkien helburuak bete gabe. Alta, Dokumentuak proposatzen duen neurrietariko bat "*promozio automatikoa*" ezabatzea da, eta, "*ahaleginaren kultura*" delakoaren aitzakiatan, "*ebaluazio prozesu objektiboak*" ugaritzea, era horretan justifikatzeko Batxilergoko Froga Orokorra edo errebalida "*nahitaezkoa*" dela.

Gizartean nagusi dabilzan balore indibidualistak eskolara sartzea nahi du Dokumentu honek. Lotsagarria da, adibidez, lehiakortasun hutsean oinarritutako eskola mota bat proposatzea. Horrek bete-betean kolpatzen ditu hezkuntzaren printzipio orokorrak.

Oinarri Dokumentuaren atzean dagoen hezkuntza sistemaren kontzeptua, ezkutatu nahi bada ere, aukeraketarena da, hots, gordin esanda, ikasle bakoitza "dagokion lekuan" uztearena. "Bakoitza izan dadila izateko balio duena". Eta eskolak aukera dezala bakoitza "balio duenerako". Ikuspegi horrek errotik aldatzen ditu gauzak, ezen sistemaren alderdi puntual batzuk ezeze, derrigorrezko hezkuntzaren oinarritzko helburuak ere kolpatzen ditu. Atzerapausu latza da, gaindituta zeuden hezkuntza eta gizarte planteamendu zaharkituetara berriro itzultzea, alegia.

## **2. Kapituluua. HEZKUNTZA SISTEMAREN EGITURA**

### **HAUR HEZKUNTZA**

#### **Haur hezkuntzaren lehen zikloa**

Kontuan izanik ziklo honek jatorrizko ezberdintasunak aurreikusi eta berdintzeko daukan eginkizuna, Kontseiluak uste du badirela arrazoi sendoak – hezkuntzakoak, laboralak eta sozialak— ziklo hau berehala ezartzeko. Arautze hori premia handiko lana da, gaindituko bada gaur egun hainbat arlotan --matrikulazioa, ordutegiak, garraioa, jantokia—dagoen zehazgabetasuna eta kalitate egokia bermatuko bada ikastetxeetan langileria, ekipamendu eta espazioei buruz ezartzen diren betebeharrak konpliz.

Oinarri Dokumentua ez da batere zehatza arlo honetan. Funtsean, hauxe esaten du: *“beharrizan sozialak betetzeko eta familiako bizitza laneko bizitzarekin uztartu ahal izateko, haur hezkuntzaren lehen zikloak izaera hezitzaile eta asistentziala izango du. Hori betetzeari begira, ziklo honetako haurrak dauzkaten ikastetxeek malgutu egingo dute euren antolakuntza familien beharrizanei erantzuteko”*.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren iritziz Haur Hezkuntzaren lehen zikloak izaera hezitzaile garbia izan behar du, baina Dokumentuak ez du beste deus esaten horretaz.

Izaera asistentzialari dagokionez, testuak ikastetxeen antolaketa malgutu beharraz baizik ez du hitz egiten, beste kontu garrantzitsu batzuk alde batera utziz. Derrigorrezko Hezkuntza guztiak, ez bakarrik Haur Hezkuntzako lehen zikloak, eginkizun asistentziala dauka, eta baita ere ikasleak gorde eta zaintzekoa. Ederto litzateke legeak funtzio hori zehaztuko balu eta, hori egitean, gizartearen errealitateari eta haur eta gazte populazioaren beharrizanei egokitutako ikuspegi batekin jokatu balu, erantzukizunak zehaztuz eta beste profesional batzuei parte hartzeko bidea irekiz.

Herri Administrazioak bermatu egin behar du badagoela eskaintza bat etapa horretarako. Kontseiluaren ustez, instituzioen arteko politika bat zehaztu behar da adin horietako haurrak artatzeko, eta politika horrek ezaugarri hauek izan behar ditu: diskriminazio positiboaren ikuspegitik taxutua, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzu koordinatuetan gauzatua (haur eskolak, ludotekak, haurtzaindegia...), eta ume txikien hezkuntza eta kultur beharrizan bereziki jaramon egiten diena. Politika horien artean berebiziko garrantzia eman behar zaio familiari eta, beraz, beste neurri batzuk hartu beharko dira –lan baldintzak hobetu, laguntzak eman...—familiek aukera izan dezaten euren haur jaio berriekin egoteko.

Azkenik, Dokumentuak ez du inolako konpromisorik hartzen ziklo hori martxan jartzeko. Ez dago eskaintza publikorik aski eta ez dirudi halakorik bultzatzeko asmorik ere dagoenik.

## **Haur Hezkuntzaren Bigarren Zikloa**

Arrazoi psikopedagogikoak direla medio, Kontseilu honek ez du egoki ikusten ziklo honen helburua irakurketa eta idazketa teknikak eta kalkulu gaitasunak irakastea izatea. Gainera, zikloa borondatezkoa denez, kontraesan bat dago planteamendu horretan. Formulazioa lausoa da, dena dago legea garatzen denean aukeratuko den bidearen pentzutuan eta arriskua dago irakaskuntza elitizatzeke eta etapa horrek bere-bereak dituen beste helburu batzuk oztopatzeke.

Ohargarria da ez direla aipatzen adin horretan hain garrantzitsuak diren ikasketa muntadun batzuk, hala nola sozializazio, adierazkortasun eta autonomia ahalmenak, jolasa, hezkuntzaren alderdi ludikoa, ingurumenaren ezagupena... Era berean, ez dira aipatzen umearen nortasuna osorik garatzeko oinarrizkoak eta funtsezkoak diren beste helburu eta eduki batzuk, esaterako autoestimuaekin, harreman sozialekin, komunikazioekin eta abarrekin lotuta daudenak.

Mintzaira arrotz bat irakasten hasteko proposamenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe gehienetan jadanik ingelesa irakasten zaie 4 urtetik aurrerako haurrei eta zentro askotan teknologia berriak azaltzeko esperientziak jarri dira martxan.

Hala ere, ez dirudi oso egokia denik "ikasketa" hitza erabiltzea adin horretako haur batek jakingai horiekin izango duen harremana definitzeko. Era berean, kezka bat adierazten da horrek ez ote duen espezializazio gehiago ekarriko --baieta, ondorioz, irakasle gehiago-- adin horretako umeen ikasgeletan. Egin daiteke, guztiarekin ere, irakasgai horiek eman, baina saiatuz modurik integratuenean egiten. Zentzu horretan, Kontseiluak proposatzen du ikastetxe batzuetan jadanik dauden laguntzako irakasleak musikan edo ingelesean espezializatu daitezela eta lanegun osoan jardun daitezela etapa horretan, hezkuntza koordinazio gehiago egon dadin eta harreman estuagoa haurren eta irakasleen artean.

Azkenik, Kontseiluak zalantzak adierazten ditu etapa hau –haur hezkuntzako lehen eta bigarren zikloa-- bultzatzeko eta 3tik 6 urtera bitarteko umeentzako behar bezainbat ikaspostu publiko egongo direla bermatzeko borondate politikorik ba ote dagoen, zirriborroan ez baita konpromisorik hartzen ikasleak osoki eta dohainik eskolatzeko; aldiz, hauxe esaten da: *"Hezkuntza Administrazioek, zeinek bere Aurrekontuek uzten dioten neurrian, laguntza emango dute behar diren adina ikaspostu sortzeko"*.

## **LEHEN HEZKUNTZA**

Haur Hezkuntzarekin gertatzen den bezala, Dokumentuak oso aipamen gutxi egiten ditu etapa honi buruz. Dokumentuak azpimarratzen du hauek direla etapa honetan nabarmenki bultzatuko diren irakasgaiak: irakasgai oinarrizkoak –hizkuntza eta

matematikak--, hizkuntza arrotz bat, eta informazio eta komunikazio teknologia berrien ikasketa eta erabilpena.

Ados gaude ikasle guztiak irakasgai instrumental oinarrikoak menderatzea dela Lehen Hezkuntzaren helburuetariko bat. Lehen Hezkuntzako ikastetxeen egoera nahiko ona denez oro har, baldintza egokiak daude hobekuntza prozesuei ekiteko. Era berean, hezkuntza administrazioak detektatu egin behar ditu zeintzuk diren egoera gatazkatsuenak, zeintzuk euren arrazoiak, eta atentzio indibidualizatuko eta hezkuntza errefortzu planak bultzatu behar ditu ikastetxeetan, etapa honetako ikasle guztiak bermatua izan dezaten behar diren oinarriko ezagupen instrumentalak eskuratzen dituztela.

Baina atal honetan aurrekoa bezain garrantzitsuak diren beste helburu batzuk ere botatzen dira faltan, euren artean, eta batez ere, honako hau: ikasleen garapen pertsonaleko prozesuak bultzatzea, bai ikasle bakoitzaren autonomia pertsonalari eta bai sozializazioari dagokionez.

Aipatu gabe uzten da baita ere etapa honetarako ezarritako egitura. Kontseilu honek uste du mantendu egin behar dela gaur egunean ezarrita dagoen egitura, hots, nortasun bana duten hiru zikloak, ikasketa errazten dutelako erritmo eta prozesu berezituak bideratuz.

Bestalde, ez da ezer esaten metodologiaz, kurrikulumaz, irakasleen prestakuntzaz, eta ezta ere faktore horiek ikasketa/irakaskuntza arloko beharrezanean eman beharreko erantzunarekin eta irakasgai instrumentalak ikasle guztiengan finkatu beharrezan daukaten zerikusiaz. Ez dira aipatzen, ezta ere, elkarbizitzaren sustapena eta dibertsitatearen errespetua bezalako gaiak. Ematen du Dokumentuan ikaslea ez dela gehiago bere ezagupenen eraikuntzaren aktore nagusia.

Dokumentuan aipatzen den area-zerrendari dagokionez, Ingurumenaren Ezaguera bi arlotan banatzen da: Zientzia eta Gizartea, batetik, eta Jakintza Historiko-Geografikoa bestetik, banaketa horretaz inolako azalpenik ematen ez bada ere. Alta, pentsa daiteke banaketa hori funtsean hurbilago dagoela irakasgai edo materia kontzeptutik area kontzeptutik baino, eta, hartara, ez dela kontuan hartzen adin horretako ikasleek modu globalago batean egiten dutela errealitate hurbildu eta errealitatea ikasi. Horregatik, iruditzen zaigu interesgarriagoa dela ingurumenari buruzko ezagupen-area bakar bat mantentzea, zatikatu gabe. Bestalde, ez da planteamendu transbertsalik aipatzen.

Hizkuntza arrotz bat ikasteari dagokionez, Kontseilu honek oso begi onez ikusten ditu Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntzen irakaskuntza hobetzeko egin diren ahaleginak. Iruditzen zaigu Euskal Autonomia Erkidegoan egin den esperientzia (4 urtetik gorako haurrei ingelesa irakastea) edo beste komunitate batzuetan gauzatzen ari direnak (8 urtetik gorako haurrendako errefortzua) kontuan hartu beharko lirakeela eta, nolana ere, Komunitate Autonomoen eskuetan utzi beharko litzatekeela ekimen horiek garatzea.

Azkenik, Kontseilua desados dago etapa honetako kurrikulumaren helburu eta edukiak zehazteari buruz Dokumentuak esaten duen honekin: "*kontuan hartuko da behar den progresioa eta DBHko etapako helburu eta edukiekiko koherentzia*", hain

zuzen ere baieztapen horrekin zalantzan jartzen delako kurrikulumeko helburuak eta edukiak zehazteko jarraitzen den logika. Kontseiluaren iritziz, planteamendua zuzen eginez gero, alderantziz esan beharko litzateke: Lehen Hezkuntzako helburu eta edukiak behar direla kontuan hartu DBHkoak zehaztean.

## **DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**

Hezkuntzaren Kalitate-Legerako Oinarri Dokumentuan honako helburu hauek ezartzen zaizkio Bigarren Hezkuntzari: *“Kultura zientifiko, teknologiko eta humanistikoaren oinarritzko ezagupenak ikasleei helarazi, ikasmolde autonomo bat eta dagozkien ekintzak burutzen laguntzeko lanmoldeak finkatu, euren eskubide-eginbideak onartzeko gai egin eta behar den prestakuntza eman goragoko ikasketak egiteko edo lan munduan sartzeko”*. Era berean, etapa horrek baditu beste helburu batzuk, Dokumentu honetan Batxilergora arte atzeratu direnak oinarritzko ikasketak direlako, esaterako: *“Informazio eta Komunikazio teknologiak ikasketa prozesuetara aplikatzea; osasunarekin, kontsumoarekin eta ingurugiroa zaintzarekin lotutako ohitura onak irakastea; ikaste, errespetu eta diziplina ohiturak irakastea eskolako zereginak egoki burutzen eta norberaren nortasuna garatzen laguntzeko”*. Helburu horiek lortzeko kasu askotan zeharkakotasun printzipioa aplikatu beharko da.

Etaparen honetan ikasleek eskubidea daukate erregimen arruntean eskolatuak izateko 18 urte bete arte, eta eskubide hori ezin utz daiteke ebaluazio taldearen eskuetan. Alta, bidezkoa da ebaluazio taldeak proposamen bat egitea, gurasoek eta ikasleek gogoan erabili dezaten erabaki bat hartu aurretik. Kasu berezi-berezietan, ebaluazio taldeak eskumena izan beharko luke Administrazioari eskolatze baldintza bereziak proposatzeko.

Kontseilu honek ez du onartzen DBHko aurreneko bi ikasturteak *“neurri handi batean ikaslea gidatzeko”* direlako. Etapa osoaren helburua, berez, heziketa da, ikasle guztiei bermatu behar baitzaizkie oinarritzko ezagupenak. Etapa hau ez da soilik goragoko ikasketetarako edo lan mundurako prestakuntza aldi bat. Lehenbiziko bi ikasturteetan, orientazio edo gidaritzak helburu hauek ditu: ikasle bakoitzaren garapenari lagundu, ikasleari bere ahalmenak zeintzuk diren aurkitzen lagundu eta ikasketetan aurkitzen dituen zailtasunak gainditzeko lagundu. Gidaritza bokazionala eta profesionala etapa honetako azken urteetako kontua eta ondoko ikasketetako da.

### **Errefortzu taldeak**

Kontseilu honek uste du neurri segregatzaile bat dela *“errefortzu taldeak antolatzea ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza emateko”*. Ez dira talde marjinalak sortu behar ikasteko arazo gehien dituzten eta eskolari gehienik muzin egiten dioten ikasleekin, eta hain gutxi 12 urtetik aurrera. Holako neurri bat hartzea, *“eskola-porrota”*ri buru egiteari uko egitea bezala izango litzateke.

Ikasketa-arazoei aurre egiteko posible da kurrikulum malguak eskaintzea, errefortzuak erabiltzea (batez ere errefortzu prebentiboak), ikasgelatan ikasleen aniztasuna kontuan hartzea, eta baita ere LOGSEn esaten dena betetzea, hots, irakasle taldeak erabakitzea ebaluazio bileran nolako errefortzuak behar dituzten ebaluazio negatiboa izan duten ikasleek. Legeak bermatu egin behar du --eta ez bakarrik aukera eman-- ikastetxeek aukera izango dutela derizten plan eta errefortzu neurriak ezartzeko, zehaztuz zein muga ezin diren hautsi eta behar dituzten baliabideak modu ekitatiboan eskainiz, ikasleen baldintza eta beharrizanak kontuan izanik. Horri buruz, Administrazioek konpromisoa hartu behar dute gehiago inbertitzeko hezkuntzan, behar diren giza eta material baliabideak jartzeko hezkuntza sistemaren eskuetan.

Arestian aipatu dugun hezkuntzaren egoerari buruzko Eskola Kontseilu honek idatzitako txostenean *"eskaria egiten zaio Hezkuntza Administrazioari arreta berezia eman diezaien eskolara egokitzeko eta eskolan integratzeko arazo larriak dituzten ikasleei, eta saia dadin aukeratzen dituen konponbideen bitartez ikastetxeek izan ditzaten gero eta ahalmen eta eskumen gehiago ikasle bakoitzari zor zaion arreta emateko."*

Txosten berean hobekuntza batzuk proposatzen dira, baina Ministerioko Dokumentuak ez ditu aintzat hartzen, nahiz eta Eskola Kontseilu honen iritziz garrantzitsuak izan:

- Gutxitu egitea area kopurua eta ikasgela bakoitzean ari diren irakasleen kopurua, batez ere DBHko lehen zikloan.
- Indartu egitea tutoretzak, hala indibidualak nola taldekakoak, ikasleen ikasketa prozesua jarraitu eta gidatzeko.
- Arreta berezia ematea ingurumen behartsuekin lotutako arazoak dituzten ikasle multzo handienak dauzkaten ikastetxeei.

Euskal Autonomia Erkidegoan martxan jarri diren Interbentzio Bereziko Proiektuak ikastetxeek prestatuak dira euren beharrizan eta baliabideen arabera. Proiektu horiek arautzen dituen arauak ez du galarazten taldeak osatzea ikasgelaz kanpo, baina mugatu egiten du aukera hori, eta are bide horretatik ez jotzeko aholkua ere ematen du (lehentasuna ematen zaie estrategia hori erabiltzen ez duten edo al bait gutxien erabiltzen duten proiektuei). Interesgarria izango litzateke emaitza onenak lortu dituztenak aztertzea, ikusteko zein elementu aplikatu diren.

## **Ibilbideak**

Eskola Kontseiluak ezetsi egiten du *"ikasleen beharrizan eta interes anitzei erantzuteko"* DBHko azken bi urteetarako proposatzen den ibilbidea.

Ibilbideen definizioa oso lausoa da. Ibilbide horiekin, ikasleen aukerak antolatzeke itxuraren azpian, taldeen homogeneitatea bilatzen da, irizpidetzat erabiliz ikaslearen arterainoko eskolako historia eta ondoko ikasketetarako orientazioa. Helburu horrekin, ikasleak gaitasunka taldekatzen dira. Eztabaida da ea egoki den ala ez, hala teoriarik nola praktikan, taldeak homogeneoak ala heterogeneoak izatea, edo, bestela esanda, zenbateraino den desiragarri eta posible heterogeneitatea ikasgeletan.



DBHko 3. mailan bi ibilbide proposatzen dira eta DBHko 4. mailan hiru. Horiei gehitu behar zaizkie ibilbide ezkutua bat, errefortzu taldeek osatzen dutena, eta, 15 urtetik aurrera, Hastapen Profesionaleko Programak.

Ibilbideak sinplekeria hutsa dira eta ikastetxeen autonomia kolpatzen dute. Hezkuntza publikoaren ikuspegitik beldurra dago ez ote diren ikastetxeetan bilduko orientazio tekniko-profesionaleko ibilbideak eta, batez ere, ikasteko eta eskola bizitzan integratzeko arazo gehien daukaten ikasleendako ibilbide ezkutua. Itunpeko Hezkuntzaren ikuspegitik, beldurra dago ibilbideak martxan jartzearekin ez ote zaion herio kolpea emango hainbat ikastetxeri.

Ezinezkoa da bizpahiru ibilbide ezartzea ("errefortzuzko ibilbidea" izan ezik) hiru hizkuntza-eredu dituen Euskal Autonomia Erkidegokoa bezalako sistema batean. Zailtasunak eta kostuaren handiak murriztu egin dute aukera ahalmena, batez ere eredu bereko lerro bat edo bi dituzten ikastetxe txikietan. Zailtasun hori izugarri handituko da baldin ibilbideen bitartez ikasleen aniztasuna eskolaordu guztietara hedatu nahi bada. Ezintasun praktikoa horri hezkuntza mailako beste arrazoi bat gehitu behar zaio: osatuko diren taldeak hain txikiak izango dira non ikaragarri pobretuko diren ikasleen arteko harreman pertsonalak eta taldeen sozializazio eta ikasketa ahalmenak.

Ibilbideak aukeratu beharrak 14 urteetara aurreratzen du etorkizunean eragina izango duten hautuak egiteko ordua, eta bistan da adin horretan ezin dela horren erabaki garrantzitsurik hartu. Bide horretatik LOGSEren aurreko garaietara itzultzen gara. Ikasle askok denbora gehiago behar izaten dute behar bezalako ikasketa maila iristeko; horiek behartuta egongo dira bigarren mailako ibilbideak sobera goiz aukeratzera. Hori gertatzen zaie batez ere familia behartsuetatik datozen ikasleei, eta eurak dira, horrenbestez, neurri honek gehien kaltetzen dituenak. Ondorioz, hezkuntza elitistagoa bihurtuko da, ororen kaltetan.

Lanbide Heziketa berriro izango da kaltetua. Ikasleei bidaltzen zaien mezua da ikasle txarrenak maila ertaineko Prestakuntza Zikloetara doazela. Kurrikuluma komuna izan arren, ez da berdina izango ibilbide bakoitzeko exijentzia maila, apalagoa izango baita Lanbide Heziketako ikasketak egin nahi dutenentzat.

Kontseiluak uste du kurrikulum aukera handiagoa eskaini beharko litzatekeela eta sakonkiago aztertu beharko liritekeela bere aukerak eta mugak. Ikastetxeek izan dezatela aukera kurrikulum ezberdinak eskaintzeko eta horrela ikasleen aniztasunari hobeto erantzuteko. Hautazko irakasgaien bitartez posible da area baten esparrua gaitzen duten gaiak jorratzea eta gai horiek ikasleen eguneroko bizitzatik hurbilago jartzeko moduko ikuspegi batetik azaltzea. Komeni da Bigarren Hezkuntzako eskola mapa errebisatzea, besteak beste ahalik eta malgutasunik handiena bermatzeko. Hori lortzeko, posible izan beharko litzateke gaur eguneko ratioen araudia ere aldatzea, hala behar izanez gero.

Kurrikulumen Dibertsifikazio Programek frogatuta utzi dute badirela antolatzeko eta irakasteko proposamen batzuk lagundu egiten dutenak DBHko ikasle talde bati atentzioa ematea. Ondorioak atera behar dira programa horietatik eta programa horiek aplikatuz irabazitako esperientziatik, euren alde positiboak etapako beste talde arruntetara zabaltzeko. Bestalde, ikusirik Dokumentuak ez dituela Programa horiek batere aipatzen, beldur izateko da ez ote diren ezabatu nahi. Galera handia

izango litzateke holakorik egitea gorago aipatu diren Programa horien onurak beste taldeetara zabaldu aurretik.

Kurrikulumak daukan arazoa da nola hurbildu errealitate soziala eta lan mundua Bigarren Hezkuntzara, adin horretako ikasleek gizarteko eta laneko protagonista direla senti daitezen. Ezinezkoa da ikasleak eskolako aterpean zarratuta atxikitzea, eskolatik landa euren kasa ezagutzen hasiak diren kaleko bizitzarekin zerikusirik ez duten gauzak ikastera behartuta.

Euskadiko Eskola Kontseiluak oso begi onez ikusten du ikasleek aukeratzea ikasi nahi duten ibilbidea, posible izatea ibilbideen arteko joan-etorriak egitea (nahiz eta aukera hau ez den askorik baliatuko) eta ibilbide guztiek Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulu berera jotzea.

### **15 urtetik gorako ikasleendako Hastapen Profesionaleko Programak**

*"15 urtetik gora eduki eta eskaintzen zaizkien ibilbideetako bat ere hartu nahi ez duten ikasleentzat Hastapen Profesionaleko Programak eratzen dira (gaur eguneko berme soziala), kurrikulum erabat praktikoarekin"* Proposamen honekin hautsi egiten da 16 urtera arte ikasle guztiek oinarritzko hezkuntza hartu behar dutela agintzen duen printzipioa. Aztertu beharrean nolatan izan daitekeen 15 urteko ikasle batek *"eskaintzen zaizkion ibilbideetariko bat ere hartu nahi ez izatea"*, eta eskura jarri beharrean ikasle horrek ikasten jarraitzeko behar dituen baliabideak, bidea errazten zaio ikasketak bertan behera uzteko.

Krudel aire bat hartzen zaio Dokumentuari, ikasketetan batere itzaropenik ez duten eta, neurri handi batean, promozio pertsonaleko esperantzarik ere ez duten ikasleez mintzo delarik *"ikasle haien igurikapenei erantzuteko asmoz..."* esaten duenean. Alta, holako egoerak gertatu egiten dira eta erantzun bat eman behar zaie. Ez dirudi ordea Lege berriaren erantzuna denik egokiena.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eskolatzeko Osagarriko Programen bitartez ikasle horiei laguntasuna eman nahi zaie, baina beste zentzu batean. Planteamendua ez da profesionala, hezitzailea baino, hots, hezkuntza helburuak sendotu nahi dira eta oinarritzko ezagupenak segurtatu, nahiz eta horretarako lantegiak erabili eta lantegi horietan lanbide heziketako ekintzak burutu. Gainera, programa hauek erabat ezohikoak dira eta, beraz, garrantzitsua da indarrean dagoen araudiko kontrolak irizpide argi eta zorrotzez funtzionatzea.

Hastapen Profesionaleko programek 16 urtetik gorako ikasleentzat izaten jarraitu behar dute, derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren aplikatzekoak.

### **Ebaluazioa eta promozioa**

Dokumentuak egiten duen proposamena hau da: *"Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ikasketen ebaluazioa izan dadila jarraitua eta ezberdina*

*kurrikulumeko irakasgaien arabera*”, proposatu beharrean ebaluazioa “jarraitua, integratzailea eta indibidualizatua” izan dadila, LOGSEk agintzen duen bezala. Ebaluazioa ez da gehiago talde-lana, etaparen helburuek uzten diote erreferente kolektiboa izateari eta irakasle bakoitza bere irakasgaiko helburu eta ebaluazio irizpideetan zentratzen da.

Orientazio horrekin berriro itzultzen gara irakasgai bakoitzari dagozkion ezagupenetan zentratutako ebaluaziora eta bistatik galtzen dira etaparen helburu orokorretan formulatuta dauden oinarritzko ahalmen eta trebetasunak. Helburu horiek ez dira lortzen irakasgaika, baizik eta irakasgai guztien ekarpenarekin jasotako ezagupenen bitartez.

Dokumentuan esaten da, gainera, hobetu egin daitekeela irakasleen irakaslanaren ezagutza, *“irakasleek modu kolegiatuan –eta era ezberdinean irakasgaien arabera—parte hartuz DBHko hurrengo ikasturteetarako sarrera erabakitzen duen ebaluazio batzordean”*. Horrekin iradokitzen dena da errefortzu indibidualaren bidez lortzen dela ezagutza, ez talde lanaren bidez. Horrek, luzera, irakasleen posizioa ahultzea eta mendentzea dakar.

*“Ebaluazioa eta promozioa etapa hau osatzen duten lau ikasturteetarako bakoitza amaitu ondoren egingo dira”* esateak ondorio bat dakar: zikloak desagertzea. Zikloak ikastetxe gehienetako lan praktikoan isla gutxi izan duen antolakera bat izan dira, baina maiz baliagarriak ere suertatu dira hezkuntza lana koordinatzeko eta irakasleak banatzeko. Uste dugu zikloak mantendu egin behar direla eta saiatu behar dela euren funtzionamendua hobetzen.

Honako hau proposatzen da: *“ikasturte bakoitzeko irakasgai guztiak gainditzen ez dituzten ikasleek aukera izango dute azterketa berezi bat egiteko... ikasturtea amaitu aurretik egin beharko dena”*. Ez dauka zentzurik ezagupen konkretuak ikastera baino gehiago oinarritzko ahalmen eta trebetasunak garatzera bideratutako hezkuntza eredu batean, ezagupen horiek ikasturtean zehar gainditzen ez duenari azterketa berezi batean gainditzeko aukera ematea epe labur batean (gehienetan gaizki aprobetxatutakoa). Logikoagoa izango litzateke ikasturte bateko irakasgai batzuk gainditu gabe hurrengo urtera igarotzen diren ikasleei atentzio pertsonala ematea hurrengo urtean. Proposatzen den neurri hori onartuko balitz, maiatzaren azken aldera hasi beharko litzateke aplikatzen eta ez irailean, horrek ikasleari eta haren familiari ekarriko lizkiekeen arazo guztiekin.

DBHko 1.etik 2.rako promozio automatikoa da zikloen ondorio nabarmenena. Interesgarria izango litzateke ziklo bakoitza bi ikasturtekoa izatea, nahiz eta ikasle batzuk, kasu bakan batzuetan, hiru urtetan egin behar izango litzuketen. Ebaluazio bileretan ikasle bakoitzaren ikasketa prozesua aztertu beharko litzateke, ebaluazio taldeak modua izan lezan erabakitzeko, une jakin batean eta zikloa amaitu arte itxaron behar izan gabe, ikasle bati komeni zaion ala ez ziklo horretan beste urtebete bat egitea.

Neurri horrek erabateko neurri bereziaren izaera duenez bakarrik erabili behar da beste neurri arruntak ezertarako izan ez direnean eta esperantza dagoenean ikasle bati aplikatuz gero emaitza ona lortuko dela. Ez da zuzena ikasturte bat errepikaraztea

zigor gisa, eta hain gutxi uste izatea ikasturte bat errepikaraziz ikasleari ikasteko grina sartuko zaiola.

Arestian aipatutako Eskola Kontseilu honen txostenean adierazten zen indarrean dagoen araudia, behintzat Euskal Autonomia Erkidegoan garatuta dagoen bezala, egokia dela eta ez daukala aldaketaren premiarik. Esaten zen, hala ere, bazirela zalantza batzuk araudia ikastetxeetan aplikatzeko moduari buruz, batetik sobera nasai jokatzeko delakoan gaintitu gabeko bi irakasgai dituzten ikasleak hurrengo urtera promozio bereziaren bidetik pasatzerakoan, eta bestetik gaintitu gabeko irakasgaiekin hurrengo urtera pasatzen diren ikasleentzat behar bezainbat errefortzu neurri egokirik ez dagoelakoan.

Legeak ebaluazio taldearen eskuetan utzi beharko luke neurri hau noiz aplikatu erabakitzea. Legeak ikasturte bat behin baino ezin errepikatu daitekeela esaten duen bezala, orobat zehaztu beharko luke zenbat aldiz aplikatu ahal izango den neurri hau etapa guztian zehar. Gaur egun indarrean dagoen araua --DBHn behin bakarrik errepikatu daitekeela, eta, Lehen Hezkuntzan errepikatu ez bada, bi aldiz-- egokia dirudi ez dadin osatu sobera adin ezberdinetako ikasleak osatutako talderik. Pentsatu beharko da, baita ere, errepikatzea ez dela izan behar aurreko urtean egindako guztia bigarren urtean berdin egitea; aitzitik, ikasturtea ikaslearen beharrezko egokitu beharko da, ikasle bakoitzaren ahalmen eta zailtasunen ikerketa sakon batetik abiatuz.

### **Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua**

Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortzeko beharrezkoa izango da "*etapako irakasgai guztiak gaintitzea*". Kontseilu honek uste du berriro galtzen dela etapako helburuen erreferentzia eta ez dela kontuan hartzen oinarritzko hezkuntzako etapa bat dela, beste ikasketa guztien giltza izan behar duena eta ikuspegi orokorra izan behar duena. Ez litzateke aldatu behar indarrean dagoen araua, aski exigente eta malgua da eta. Exijentzia horrek, eta irakasgaikako ebaluazioak, irakasle guztien eskuetan jartzen du azkenean titulua emateko erantzukizuna. Kontseiluak uste du hobe dela erabaki hori irakasle talde osoarena izatea.

### **BATXILERGOA**

Gaur egun dauden hiru batxilergo motaren ordez lau mota ezartzeko proposamenari dagokionez, Kontseiluaren iritzia da aldaketa hori ez dela behar bezainbat arrazoitzen. Oraingo Batxilergo motak aberatsagoak eta anitzagoak dira eta hobeto erantzuten diete ikasle beharrezkoen, hala Prestakuntza Zikloak aukeratzen dutenenei nola unibertsitate bideratzen direnenei.

Batxilergo Teknologikoaren kasuan bereziki, Kontseiluaren iritzia da aukera autonomo eta independente bezala mantendu beharko litzatekeela, Natur eta Osasun Zientzietako Batxilergotik bereizita.

Batxilergo Teknologikoa aukera independente bezala ezabatuz eta Natur eta Osasun Zientzietako Batxilergoarekin bat eginez sortzen den batxilergoa elitistagoa bihur liteke eta promozio bide zuzen bat bultzatzea ez da Maila Ertaineko Zikloetatik Goi Mailako Zikloetara; horrek kalte egin diezaiolake Lanbide Heziketari. Gainera, ez da argitzen zergatik murrizten den mota bat eta zergatik ezartzen diren beste hiruak, posible denean beste mota batzuk sortzea bai Zientzia eta Teknologia taldean eta baita ere Humanitate eta Gizarte Zientzietan.

Proposamen horren bidez ibilbideen antolaketa eta irakaskuntzaren kalitatea hobetu nahi bada, helburu horretara bideratutako neurriak hartu beharko lirateke, ikastetxei baliabide gehiago eta azpiegitura hobek emanez (lantegiak, laborategiak, materialak, eta abar). Bestalde, itxura txarreko joera bat hasi da nabaritzen: ematen du aldatzen hasi dela Batxilergoaren hasierako planteamendua eta orain gehiago bideratzen ari dela unibertsitate sartzeko ikasketetara, alde batera utziz Goi Mailako Formazio Zikloetara sartzeko behar den lanbide heziketa tankerako oinarritzko prestakuntza. Dokumentuaren proposamenaren bidetik joz gero arriskua dago Batxilergoko bi ikasturteak --Batxilergoko helburu espezifikoak lortzera bideratuta egon beharko luketenak-- Batxilergoko Azterketa Orokorra (BAO) gainditzeko prestakuntza hutsa bihurtzeko, ikasleen formazioaren kaltetan.

Ikusten da edukiak egokitzeko eta irakasgaien didaktika hobetzeko hasierako oldar hura, irakasleek hain gogotik besarkatu zutena, ahuldu egin dela oro har. Egoki izango litzateke ahalegin berezi bat egitea alderdi hau jorrazteko, hobetu daitezkeen ikasleen aukerak eta ematen zaien hezkuntzaren kalitatea.

Medikuntza, erizaintza, fisioterapia eta antzeko ikasketetara bideratuta dauden Natur eta Osasun Zientzietako Batxilergotik heldutako ikasleen eskakizunak egokitzeari dagokionez, eta ikusirik ikasketak mota horiek egiteko Unibertsitatean dagoen ikaspostu eskaintzaren urria, egin beharko litzatekeena ez da Batxilergoko aukerak murriztu, baizik eta ikaspostu horien eskaintza handitu.

### **Batxilergoko Azterketa Orokorra**

Euskadiko Eskola Kontseiluak zalantzan jartzen du bai frogak hori egin beharra eta baita frogak bera ere; are gehiago, bada puntu honekin zeharo desadostasiaz agertzen denik iruditzen zaiolako azterketa hori *kontrol mekanismo hutsa bezala* planteatzen dela, *hobekuntzarako tresna bezala* barik.

Frogatuta dago azterketa orokorrekin ez dutela askorik laguntzen jakiteko zein den ikasleen benetako ezagupen maila eta gehienetan baldintzatu egiten dituztela aurreko prozesuak. Hortxe sortzen da hain zuzen arriskua Batxilergoko urte biak Batxilergoko Azterketa Orokorra prestatzeko beste ezertarako ez izateko, eta Batxilergoko helburu espezifikoak, aurreko kapituluan adierazi direnak, alde batera utziak izateko.

Gainera, BAOak zuzenean kolpatzen du ebaluazio jarraitua eta klaustro bakoitzaren eta Komunitate Autonomo bakoitzaren autonomia kurrikularra.

Ahozko eta idatzizko ariketa baten bidez egin nahi den atzerriko hizkuntzaren azterketari dagokionez, errezelo handiak daude. Azterketa horrek kalte egingo lioke akademiak ordaintzeko edo atzerrira joateko dirurik ez daukaten ikasle behartsuen espedienteari. Atzerriko hizkuntzen ikasketa hobetzeko beste neurri batzuk bultzatu beharko lirateke, esaterako hizkuntza irakasle gehiago ariarazi ikastetxeetan, hizkuntzen didaktikako ikastaroak eman irakasleei, ikastetxeak teknologia berrieekin hornitu, tresna horiek erabiltzen irakatsi, eta abar.

Batxilergoko Azterketa Orokorren aurka egoteak ez du esan nahi beste kanpo azterketa batzuk egiteari uko egiten zaionik. Ez da zuzena pentsatzea hezkuntza sistemaren ebaluazioa ikasleen errendimendu akademikora mugatzen dela (erabat gaudituta dagoen ebaluazio eredu). Nolanahi ere, hezkuntza sistemaren ebaluazioan prozesu eta eragile guztiak sartuta egon beharko lirateke (administrazioa, ikastetxeak, zuzendaritza, irakasleak, ikasleak eta gurasoak).

Hezkuntza sistemaren errendimendua neurtu nahi balitz ikasleen emaitza akademikoei dagokienez, eta datu horiek jakiteko Batxilergoa amaitu arte itxaron nahi izango ez balitz, posible izango litzateke Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEIE) aurretiaz zehaztutako azterketa batzuk eginaraztea –prozesuak hobetzeko aztertu behar diren mailetan bakarrik--, lantzean jakitea komeni dena jakiteko.

Behin Batxilergoko helburuak lortu ondoren, unibertsitatera sartzekoan ikasleak ez litzateke aurkitu behar gutxienezko oztupoak baizik, irizpideak bateratu eta merezimenduak eta ahalmenak bermatu beharrean arbitraritatea sendotu lezaketan premia gabeko bestelako langa batzuk jarri gabe. Nolanahi ere, ikasle bakoitzaren kurrikuluma bai kontuan har liteke ikasketa jakin batzuetara sartzeko bidea errazteko.

## **Goi Mailako Lanbide Heziketarako sarrera**

Gaur egun 20 urtetik gorako edonor aurkeztu daiteke Goi Mailako Prestakuntza Zikloetara, Lanbide Heziketako Titulu ertaina eduki zein eduki ez.

Kontseiluak arrisku bat ikusten du, hots, ez ote diren finkatuko bi eskolatzeko bide elkarrekin uztar ezinak direnak: lanbide heziketarena, batetik, eta unibertsitatera bideratutako ikasketena, bestetik. Berrito proposatzen da egokitze-kurtsoa, baina ez du inolako abantailarik ekartzen, aukera baitago jadanik indarrean dagoen sarrera frogaren bitartez sarbidea egiteko.

Honako faktore honek indartzen du ideia hori: ikasle batek Batxilergoko ikasturte biak osorik gaudituko arren Batxilergoko Azterketa Orokorra lau saioren buruan gaudituko ez balu, Batxilergoko titulurik gabe geratuko litzateke eta beste irtenbiderik ez luke izango baizik eta edo Maila ertaineko Prestakuntza Zikloetara jo, edo Goi Mailako Zikloetara sartzeko azterketa libre egin. Aldiz, maila ertaineko teknikariek goi mailara igarotzeko aukera izango dute egokitze-kurtsoa gauditze hutsarekin. Egoera

horrek anitz ikasle atzeratuko ditu Batxilergoko ikasketak egitetik, eta era horretan ikasketa horiek galdu egingo dute goi mailako prestakuntza zikloetara sartu nahi duten ikasleak prestatzeko izaera. Horrek guztiak kalte egingo dio Lanbide Heziketaren kalitateari.

### **Helduen Hezkuntza**

Nahiz eta ikasleak 18 urte bete arte egon daitezkeen ikastetxe arruntetan eskolatuak Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko, badira 16 urtez goitiko eta 18 urtez beheitiko ikasleak Lanbide Heziketarako Hastapenean interesik ez dutenak eta Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortu besterik nahi ez dutenak. Kasu horietan, ona da Helduen Hezkuntzara sartzeko aukera izan dezaten, gaur egun urrutiko hezkuntzara jotzea beste aukerarik ez daukate eta.

Alta, ikasle horiei aukera eman beharko litzaieke ikastetxe arruntetan egoteko hala egin nahi izango balute.

## **3. Kapituluak HEZKUNTZA BEHARRIZAN BEREZIAK DITUZTEN HAUREN ATENTZIOA**

### **Ikasle atzerritarrendako programak**

Proposamenak zeharo atzentzen du sozializazioak daukan garrantzia ikasle atzerritarrek gure hezkuntza sisteman integratzerakoan. Gai hori garrantzitsuenetariko bat da hezkuntza sistematik sortzen den edozein programatan.

Beraz, ez dauka zentzurik programazio berezi bat taxutzea ikasle horientzat, salbu eta harrera programekin edo hizkuntza inmersio programekin lotuta daudenak, baina horietan ere beti helburua ikasleok alaitzen ikasgela arruntetan ezartzea izan behar da. Helburua ez da segregatzea, integratzea baizik, eta integrazioa egitean ikuspegi interkultural batetik jokatzeko, ikasleek, hala bertakoek nola atzerritarrek, ikas dezaten "elkarrekin bizitzen" kultura anitzeko gizarte batean.

Desegokia dirudien bezala hezkuntza arazoak dituzten ikasle atzerritarrek ikasgela berezietan jartzea, Kontseilu honek uste du ikasle horien eskolatzeak are premiatsuagoa egiten duela neurri zorrotzak hartzea hezkuntza beharrizan bereziak dituzten ikasle atzerritarrek ikastetxe jakin batzuetan neurri gain pilatzeko joerari zainak mozteko. Neurriak hartu behar dira eta laguntzak eman behar dira populazio hori modu orekatuan banatu dadin ikastetxe eta sare guztien artean.

Ikasle horiek beste ikasle guztiek dituzten baldintza berdinekin eskolatzeko, giza eta diru baliabide handiak behar dira.

Atzerriko jatorria duten ikasleen hezkuntzak ez luke beste berezitasunik izan behar baizik eta, behar denean, errefortzu neurri zenbait aplikatzea, beti ere, baina, sistemaren filosofia orokorraren barruan jokatzuz. Gure ustez, filosofia horren oinarriak besarkamena eta aniztasunaren atentzioa izan beharko lirateke.

Beraz, ez da ezberdintasunik egon behar lan mundurako balio duten ziurtagiriak ematean.

#### **4. Kapituluua. IKASTETXE PUBLIKOEN ANTOLAMENDUA ETA ZUZENDARITZA**

Hezkuntzaren Kalitate-Legerako Oinarri Dokumentuak aldaketa sakonak sartzen ditu ikastetxeetako antolakuntzaren bi arlo garrantzitsutan. Batetik, aldaketak dakartzan ikastetxe publikoetako antolakuntza-egituran eta, bestetik, ikasleak onartzeko irizpide berriak ezartzen ditu, sistema osoari eta sistemako ikastetxe guztiei eragiten dietenak.

Beste maila apalago batean, ikastetxeetako autonomia-esparru batzuk garatzeko borondatea adierazten du eta testu liburuetarako baimena arautzen du.

Ikastetxe publikoetako antolaketa egitura berriari dagokionez, aipatzekoa da lehenik gobernu eta partaidetza organoen banaketa berri bat, partaidetza organoetan kontrol eta kudeaketa funtzioak sartzen direla. Ikastetxeko Eskola Kontseiluak galdu egiten du zelanbait bere eragin esparrua lehenbiziko taldetik bigarren taldera pasatzean.

Euskadiko Eskola Kontseiluak horri buruz uste du ikastetxeekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuan hezkuntza komunitateak izan behar duen partaidetza arazoak ez direla konpontzen konpetentziak gutxituz, organo bakoitzak ondoen bete ditzakeen funtzioak sendotuz baizik. Kontseilu/zuzendari bikote berriak ekarri lezakeen funtzio birbanaketaren lausotasunaren aurrean, uste dugu Eskola Kontseiluak erabakigune gorena izaten jarraitu behar duela eta, ondorioz, eskumena izan behar duela beti ikastetxeko lerro programatiko nagusiei buruzko erabakiak hartzeko --gaur egun aitortuak dituen eskumenei eutsiz hain zuzen ere--, epe labur eta ertaineko plan instituzionalak onartuz eta plan horien kontrola eta ebaluazioa eginez. Hori bateragarria da zuzendaritza taldearen eskumen exekutiboak indartzearekin.

Oinarri Dokumentuak zuzendariaren papera aztertzen du bereziki, eta eskumen gehiago ematen dizkio, "*bere buruzagitza eta autoritatea indartuz*", testuak dioen bezala. Horren ostean zerrendatzen diren funtzioak ikusirik (*bultzatu, sustatu, fagoratu, bideratu*), badirudi nekez betetzeko moduko enuntziatuak direla, behintzat horiek obratan eman behar dituztenek laguntzen ez badute. Zalantzan jarri liteke, bestalde, zuzendaria "*Administrazioak ikastetxean duen ordezkaria*" bezala definitzeak inolako gisaz lagundu ote dezakeen zuzendarien lidergoa sendotzeko, batez ere denbora



berean ez baldin bada esaten zuzendaria ikastetxeak berak Administrazioaren aurrean daukan ordezkaria dela ororen gainetik.

Autoritatea indartzeari dagokionez, zuzendariaren eginkizuna *“gatazkak konpondu eta ikasleei behar diren diziplina neurriak aplikatu”* izan behar bada, orduan iruditzen zaigu autoritatea eta derrigorrezko diziplina nahasten ari direla. Beharrezkoa da Elkarbizitza Batzordearen eskumenak indartzea, bai ekintza positiboak bultzatzeko eta baita ere kolektibo eta sektore ezberdinen arteko harremanak zapuzten dituzten indiziplina arazo orokorrak edo arazo indibidual larrienak aztertzeke eta behar diren hezkuntza neurriak aplikatzeko. Beharrezkoa da, beraz, azterketa sakon bat egitea hezkuntza komunitateko partaide diren subjektu guztien ikuspegitik.

Berriro arautzen da zuzendari izatera iristeko bidea, eta bi baldintza jartzen dira behin-betiko habilitazioa lortzeko: prestakuntza izatea eta karguan esperientzia izatea. Hala ere, sartu nahi den aldaketa nagusia hau da: orain arte zuzendaria Eskola Kontseiluak aukeratu izan du, baina hemendik aurrera Administrazioak eta Kontseiluak osatutako batzorde misto batek aukeratu luke.

Horri dagokionez, Euskadiko Eskola Kontseiluak uste du Eskola Kontseiluak jarraitu behar duela izaten zuzendaria aukeratzeko duena, prozedura horretan Administrazioa sartzeak ez baitu berez segurtatzen izendapena hobea izango denik. Aitzitik, menpekotasun bat sortzen da, ikastetxearen autonomia printzipioa kolpatzen duena. Gaur gaurkoz arazoa oso bestelakoa da, hots, gutxi direla zuzendari izateko eta kargu horren araberrako erantzukizunak hartzeko gogoia duten irakasleak; zentzu horretan, nekez berotuko da inor zuzendari izan nahi izatera, zuzendari habilitazioa lortzeko jarri nahi diren betebeharrak berriekin eta zuzendariak aukeratzeko ezarri nahi den sistema berri horrekin.

Zuzendaritza taldearen ezagutza profesionala indartzeko neurriei dagokienez, Eskola Kontseilu hau ados dago oro har Oinarri Dokumentuak proposatzen dituen neurriekin. Gainera, gure ustez, lehenetsuna eman behar zaio dedikazio zabalagoa bermatzeari, hala zuzendari taldeko kideei nola koordinazio zereginetan ari diren gainerako karguei, modu horretan segurtatzeko bakoitzak egoki atenditzen dituela dagozkion antolakuntza zereginak. Era berean, zuzendari karguek eskolaorduz kanpo egiten duten lana nolabait konpentsatzeko, eskatzen dugu malgutu dakiela ordutegia eta egutegia.

Ikastetxe publikoetako funtzionamendu egiturako aldaketa proposamen sailari buruzko azken gogoeta gisa, nola itunpeko sare pribaturako ez den proposatzen sare publikorako proposatzen den bezalako aldaketarik, azkenean gertatuko litzateke euren haurrak sare pribatuan matrikulatzen dituzten gurasoek ahalmen gehiago izango luketela ikastetxeko erabakietan parte hartzeko sare publikoan matrikulatutako haurren gurasoek baino, ez baitugu ulertzen nola edo zergatik izan behar duen horrela.

Antolaketa mailan proposatzen den bigarren aldaketa handia, mota guztietako ikastetxeei eragiten diena, ikasleak onartzeko irizpideena da. Euskadiko Eskola Kontseiluak irrimo adierazten du ez duela onartzen inolako urratsik ematea ikaslearen espedientearen baremaziorantz, uste baitu bide horretatik areagotu egiten dela ikastetxeak euren ikasleen jatorri soziokulturalaren arabera sailkatuak izateko joera, eta badakigu jatorri horrek zerikusiz zuzena daukala emaitza akademikoekin.

*"Ikastetxearen espezializazioarekin zerikusia duten irakasgaietan lortutako kalifikazioak"* irizpide osagarri bezala erabiltzeak areago sakonduko luke ikastetxe batzuen segregazioa.

Eskola Kontseilu honek oso begi onez ikusten ditu ikastetxearen autonomia pedagogikoa sendotzera datozen neurri guztiak. Ados gaude *"kurrikulumeko alderdi batzuk –linguistikoa, humanistikoa, zientifikoa, artistikoa, Informazio eta Komunikazio Teknologiak, besteak beste-- azkartu eta zabalduko duten hezkuntza proiektuak"* eskatzearekin. Funtsean, jadanik badira Euskal Autonomia Erkidegoan proiektu bereziak martxan dituzten ikastetxe publiko eta pribatuak.

Ondo ikusten dugu figura berriak sartzea plantiletan, hala nola *"...kudeaketa ekonomikoa egiteko langile kualifikatuak, irakaskuntzaz bestelako lanetan ariko diren laguntzaileak, elkarbizitza giroa hobetzen lagunduko dutenak, eskoletako liburategien kudeaketa eta ekipo informatikoen mantenimenduko espezialistak"*. Lege Organikoak finantzaketa Hezkuntza Administrazioen eskuetan uzten duenez, berriro azpimarratzen ditugu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak bere kudeaketa lanean egin dituen aurrerapen handiak.

Azkenik, neurri ona iruditzen zaigu testu liburuak eta kurrikulumeko gaiak Administrazioaren baimena lortu beharraz salbuesten dituen xedapena, baldin eta prozeduraren bat zehazten bada ikasgelan erabiltzen diren ikasgaiak behar bezala kontrolatzeko, uste baitugu kurrikulumaren osaketa eta aplikatzen diren proposamen didaktikoak argialetxeen eskuetan daudela neurri handi batean.

Administrazioaren baimena behar dela agintzen duen xedapena jadanik aplikatzen ari den Euskal Autonomia Erkidegoan egokitu egin beharko da euskarazko testuendako dirulaguntzak betebeharrak jakin batzuen pentzutan jartzen dituen araudia, betebeharrak horiek aldeztatu aurretiko baimen baten balioa baitute.

## **5. Kapituluak: IRAKASLANA ETA KARRERA PROFESIONALA**

Kapitulu honek hiru atal ditu: irakasleen zeregin edo funtzioak, irakasleen hasierako prestakuntza eta karrera profesionala, eta irakaslanak. Oro har, kapitulu honetan ageri da inongo argien Dokumentua idatzi dutenen pentsaera kontserbadorea, irakaslanaren egiazko arazoez daukaten jakineza gordina eta holako sinplekeria bat gauzak proposatzerakoan, irakasleen eta hezkuntza komunitatearen aurkako irainaren muga-mugan kokatzen dena.

Lehenbiziko atalean zerrendatuta dauden irakasleen funtzioei dagokienez, badirudi garrantzitsuenak jasota daudela, nahiz eta batzuk gaizki idatzita egon (erantzukizuna ez da funtzio bat). Behin funtzio horiek izkribuz pausatzerara jarritz gero,

ordea, komenigarria izango litzateke zehaztu egitea edo hobeto formulatzea hezkuntza berrikuntza eta ikerketari buruzkoak, gurasoendako informazio kolektibo zein indibidualari buruzkoak eta ikastetxeko planaren kudeaketa eta garapenean parte hartzeari buruzkoak.

Irakasleen hasierako prestakuntzari buruzko atala ikaragarri pobrea da, dagoeneko inork defendatzen ez duen oraingo ereduaren jarraikeria hutsa da eta ez du baliorik etorkizunari begira. Eskola Kontseilu honek aurreko ikasturtean prestatu zuen 94-00. txostenean aztertuta utzi zuen arazo hau eta irakasleen hasierako prestakuntza errotik errebisatzeko premia aipatu zuen. Lehen Hezkuntzari dagokionez, hasierako prestakuntzaren errebisio hori egiteko bide bat hauxe izan daiteke: irakasle ikasketak lizentziatura bihurtzea, urrats horrekin benetan hobetuko bailitzateke irakaslearen irudia gizartearen begietan. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, errebisio hori arretaz aztertu behar da baina, nolana ere, gure ustea da errebisioaren azken emaitza izan beharko litzatekeela, irakaslanera sarbidea ematen duten lizentziatura guztietan, espezializazio berezi bat egotea irakaskuntzan aritzeko asmoa duten guztientzat. Espezializazio horren barruan prestakuntza psiko-pedagogiko sendo bat sartu beharko litzateke, eta ez bakarrik prestakuntza didaktikoa. Aldiz, Oinarri Dokumentuak dakarren proposamena Irakasgaitasun Ziurtagiriaren aldaki huts bat baino ez da, tramite hutsa izango da eta irakasleen hasierako prestakuntzaren arazoa konpontzen ez du fitsik lagunduko.

5. kapitulu honetan bada hirugarren atal bat Karrera Profesionala eta Etengabeko Prestakuntza deritzana. Karrera profesionalaren kontzeptua bera (oraintsu arte irakasle karrera) ez zaigu oso hurbila gertatzen. Eskola Kontseilu honek gai honi buruz prestatu dituen azken idazkietan nahiago izan du promozio profesionala hitza erabili eta eskatu du bultzatzea dadila promozio hori bai irakaskuntza lanean bertan (promozio horizontala) eta baita ere profesional esperientziadunen premia daukaten hezkuntza sistemaren beste lanpostu batzuetan ere (promozio bertikala). Nolanahi ere, gai hau ikuspegi orokor batetik aztertu behar da, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak, eta ezin muga daiteke Katedratikoaren figura berpizte hutsera. Gure iritziz, ezabatu egin behar da katedratikoaren figura eta ez dago inolako motiborik uste izateko horri indar gehiago emanaz hezkuntza sistema ezertan hobetuko denik. Alderantziz, bide horretatik irakasleen hierarkizazioa areagotuko litzateke eta euskal hezkuntza sisteman jadanik gaudituta dagoen holako izpiritu korporatibista bati hats berria emango litzaioke. Gainera, figura horri ematen zaizkion aginpide batzuk inondik ere ez dagozkio berari, esaterako ikastetxeko berrikuntza eta ikerketa didaktiko eta hezitzaileen proiektuak zuzentzea.

Horago aipatu dugun promozio profesional horizontalak lehenetsuna eman beharko lioke ikastetxe baten antolakuntza zereginei (zuzendaritza eta kudeaketa, beste irakasle batzuen koordinazio eta tutoretza, ikasleen tutoretza, berrikuntza eta ikerketa proiektuen koordinazioa...), kontuan izan gabe katedratiko batek, agregatu batek ala interino batek burutuak ote diren.

Etengabeko prestakuntzari dagokionez, adierazpen orokor bat egiten da, printzipioz denei ondo iruditzen zaiena: "*Irakasleen etengabeko prestakuntza funtsezko elementu bat da kalitatezko hezkuntza lortzeko*". Jarraian, hala-holako paragrafo erreskada bat dator eta bertan aipagarriena da irakasleen aldizkako ebaluaziorako

proposamena. Dokumentuaren testua ez da batere argia, zeren batean esaten duen aldizkako ebaluazio batzuek eragina ukanen dutela irakasleen mugikortasunean, irakaskuntza karreran eta soldatan (prestakuntza osagarriak), eta bestean berriz *"irakasleen borondatezko ebaluazioa"*z hitz egiten du. Printzipioz, denek onartzen dute irakasleen ebaluazioa gauza beharrezkoa dela. Egiteke dagoen lan bat da hori, noizbait aurre egin beharko zaiona, baina bere zailtasunak ere badituena. Eta hainbat gehiago, baldin irakaslanean (promozio profesionalean) eta irakasleen soldatan eragina ukan behar badu eta Estatu guztirako indarra izan behar badu. Horregatik, gai hau ezin da ebatzi lege bat onartuz eta kito. Alderdi askorekin negoziatu behar da, eta batez ere bi forotan: Hezkuntzako Konferentzia Sektorialean eta negoziazio mahaian irakasleen ordezkari sindikalekin (ez ordea Madrilen ordezkariak dituzten sindikatuekin, Estatu mailan dituztenekin baino). Hezkuntza arloko eskumenak Komunitate Autonomo guztiei transferituta dituen gurea bezalako sistema batean negoziazio batzordeak antolatu behar dira, Estatu osoko irakasleak ordezkari izan dezaten eurretan eta negoziazioak ez daitezten egin soilik *"ZHM lurraldea"* [MEC lurraldea] izandakoan ordezkari izan duten sindikatuekin. Bestalde, irakasleen aldizkako ebaluazioaren alde Dokumentuan egiten den bezalako proposamen batek aurrera egingo badu, Komunitate Autonomo guztien oniritzia lortu beharko da, batez ere hizkuntza ofizial propioa dutenen oniritzia. Dokumentuan aipatzen diren irizpide *"homogeneoek"* komunitate elebidun horien ezaugarriak errespetatu behar dituzte eta hori lortzeko bide bakarra kontsensusa eta negoziazioa da.

Nolanahi izanik ere, honelako proposamen bat irakaslanaren ebaluaziorako proiektu orokor baten barruan sartuta egon beharko litzateke, eta proiektu horrek batez ere autoebaluazioa bultzatu beharko luke, hots, irakaslanaren alde onak eta ahuleziak autoazterketaren bidez ezagutzeko gaitasuna, azterketa hori taldean eginez eta erreferentziatzat ikastetxearen proiektu kurrikularra hartuz. Horrela ulertuta, irakaslanaren ebaluazioa garapen profesionalerako oinarrizko elementu bat da eta testuinguru horretan erabat zentzuzkoa bilakatuko litzateke ikastetxeaz kanpoko ebaluazioak egitea ikastetxeetan burututako autoebaluazioaren osagarri gisa. Alta, aztertzen ari garen Dokumentuan ez dago kontestualizazio horren aztarnarik. Etengabeko prestakuntza aipatzen da azalkiro, baina ez da inolako proposamenik pausatzen ez konpromisorik hartzen hori bultzatzeko.

Dokumentuaren egileek kopeta izan dute 5. kapituluaren azken atal honi amaiera ematen dion zatiari *"Irakaslanaren ezagutza"* izenburua jartzeko. Lau *"neurri"* agertzen dira hor, ustez irakasleen autoritatea eta ezagutza soziala indartzeko. Horietatik hiru (DBHren bukaerako ebaluazio txostenean parte hartzea, ebaluazio batzordean parte hartzea eta zuzendariaren aukeraketan parte hartzea) irakasleak aspaldi handian egiten ari diren lanak dira. Laugarren *"neurria"* berritzaileagoa izango litzateke, behintzat orain arte ibilbiderik egon ez den heinean, eta bere helburua izango litzateke ikastetxe bakoitzari eskumena ematea irakatsi behar dituen ibilbideak *"aukeratu"* ahal izateko. Irakasleak ebaluazioan parte hartzeari dagokionez, Dokumentuak hitzez hitz dio bultzatu egingo dela *"ebaluazio batzordean irakasleek izango duten partaidetza kolegiatua –modu ezberdinetan irakasgaien arabera"*. Baldin horrekin egin nahi dena bada irakasle bakoitzari botere pertsonal bat ematea irakasle taldeaz aparte aritu dadin, neurri horrek irakaslanaren ezagutza soziala bultzatu beharrean individualismoa bultzatu eta gatazkak ugalduko ditu. Irakaslanaren ezagutza eta prestigioa sendotzeko konponbide bikaina, alajaina.

## 6. Kapituluua. HEZKUNTZA IKUSKARITZA

Ez dira argi bereizten Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunak eta laguntza zerbitzuenak. Hezkuntza Ikuskaritzak oinarrizko bi eginkizun ditu: legea eta Administrazio arauak ondo betetzen direla segurtatzea (eginkizun hau aipatu ere ez da egiten) eta irakaskuntzaren kalitatea ebaluatzea. Eginkizun horien ondorioz heldu dira beste batzuk, hala nola ikastetxeetako autoebaluazio prozesuak bultzatu, aholkatu eta lagundu.

Hauek dira laguntza zerbitzuen zereginak: aholku ematea ikastetxeei euren irakasle prestakuntza proiektuetan, gogoeta egitea euren lanaz, atentzioa ematea aniztasunari, berrikuntzak sartzen laguntzea eta Administrazioak bultzatzen dituen berrikuntza eta hobekuntza proposamenak ikastetxeetara helaraztea.

Ezagutuak dituen eskumenen indarrez, Eusko Legebiltzarrak onartuta utzi zituen Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989. Legea, uztailaren 6koa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz Kanpoko Irakasleen 1993/2. Legea, otsailaren 19koa, modu horretan irakaskuntzako funtzio publikoa antolatuz eta bere irakasleen kidego propioak sortuz. Nolaz eta Hezkuntza Ikuskaritzaren kidegoa kidego propio bezala arautua izateko zain geratu zen, beharrezkoa da arauketa hori egitea 1993/2. legearen hitzaurrean beste irakasle kidego batzuentzat ezarrita dauden baldintza beretan.

Eginkizun eta berezitasun horiek, edozein irakasle kidegorenak bezala, oinarrizkoak izan beharko lirateke mugikortasuna bermatzeko. Ikuskari lanera iristeko bideari dagokionez, proposamena da beste bide batzuk zabaltzea, hezkuntza kontzertatu eta pribatuko profesionalak ere izan dezaten aukera zerbitzu horretara iristeko. Guztien eginkizun eta berezitasunak berdinak direnez, logikoa dirudi kidego berezirik ez egotea.

Oraingo hezkuntza sistemaren eskakizunei egoki erantzuteko, ezinbestekoa da Hezkuntza Ikuskaritzan lanean ari diren profesionalen kualifikazioa hobetzea. Prestakuntza hori –prestakuntza orokorra baztertu gabe-- euren zereginekin zuzenean lotuta dauden gaien ingurukoa izan beharko litzateke nagusiki.

Bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzari eskatzen zaio errotik jakin dezala zer gertatzen den ikastetxeetan; horretarako, sarriago egon beharko litzateke ikastetxeetan eta laguntza gehiago eman beharko litzaioke. Kontrol lanak bermatu egiten du arauak ondo betetzen direla, eta aholkularitza zerbitzu baten laguntza izan beharko luke hobeto aplikatua izateko.

Ikuskari guztiak hainbeste lan-mota ezberdin egitera behartuak izaki, ezinezkoa zaie garrantzitsuenei behar bezalako arreta ematea. Uste dugu egokia izango

litzatekeela zonako talde bakoitza zeregin zehatzetan espezializatutako lantaldetan banatzea.

Komeni den guztietan, Hezkuntza Ikuskaritzak prestatzen dituen txosten, azterketa eta ikerketak ez zaizkio banatu behar bakarrik Ikuskaritzak bere gainean daukan Administrazioako hierarkiari, baina baita ere Hezkuntza Komunitateari, hots, bere ikastetxe eta zerbitzuei.

## **7. Kapitulua. HEZKUNTZAREN ESTATUKO GOI-IKUSKARITZA**

Estatuaren eskumenekoak diren arloetara mugatu behar da Goi-Ikuskaritzaren lana.

Hezkuntza Ikuskaritza, Hezkuntza Administrazio Autonomikoen eta bere administratuen zerbitzura egon behar da. Zerbitzu horren kalitatea bermatzeko, aurreko kapituluan esan dugun arauketa egin behar da.

## **8. Kapitulua. HEZKUNTZA SISTEMAREN EBALUAZIOA, BERRIKUNTZA ETA IKERKETA**

Oinarri Dokumentu honen arabera, Hezkuntza Sistemaren Ebaluazio eta Kalitaterako Institutu Nazionalari (HSEKIN) dagokio *"hezkuntza sistemaren ebaluazioa egitea, Estatu mailako hezkuntza estatistikak egitea eta ebaluazio eta azterketetarako nazioarteko programetan parte hartzea"*. Eta hauxe eransten du: *"Hezkuntza Administrazioek parte hartuko dute egiten diren hezkuntza sistemaren ebaluazio orokorreko ekintzetan eta lagundu egingo diote HSEKINi hezkuntza adierazleen sistema nazional bat osatzen, hartarako behar diren datuak emanez"*.

Inork ez du ukatzen horrelako ebaluazioak egiteko dagoen premia. Baina kontuan izanik hezkuntza arloko eskumenak dituzten Komunitate Autonomoetako egoeren arteko ezberdintasunak, ez da ulertzen komunitateok erabakimenik ez izatea edo, gutxienez, HSEKINek zehazten dituen lerroak kontrolatzeko ahalmenik ez izatea eta euren lan bakarra informazioa ematea izatea, batez ere oraingo Kalitate eta Ebaluaziorako Institutuaren Kontseilu Errektorea hezkuntza eskumenak dituzten

Komunitate Autonomoetako ordezkariak osatuta dagoenean eta Komunitate Autonomo bakoitzak ahalmena daukanean bere mendeko lurraldean lagina zabaltzeko eta are galdetegietako galderak ugaltzeko ere. Horregatik hain zuzen Kontseilu honi onartezina zaio Komunitate Autonomoen eskumenak eta erantzukizunak murrizteko ahalegin hau.

Bestalde, politikak definitzerakoan ikastetxeen ebaluazioaren erreferentzia hutsa erabiltzen denean, ikasleen emaitzei ematen zaie arreta guztia eta ez dira kontuan hartzen ikasketa prozesuak eta testuinguruak. Alta, arlo horretan oraintsu egindako ebaluazioen emaitzei begiratuz gero, argi dago ikasleen jatorri sozioekonomiko eta kulturala dela emaitza akademikoak zuzenkienik baldintzatzen dituen faktorea. Horri dagokionez, oso garrantzitsua izango litzateke ikasleen jatorri-ezberdintasunari erantzuteko ikastetxeek daukaten ahalmena aztertzea hezkuntza sistemaren ebaluazioak egiten direnean, hain zuzen ere LOGSEren V. tituluan ("Hezkuntza ezberdintasunak orekatzeaz") esaten zen bezala.

Ez da ulertzen nola izan daitekeen hezkuntza kalitatea neurtzeko ebaluazio bat kontuan hartzen ez duena familia eta gurasoek euren seme-alaben ikasketetan duten partaidetzak ikasle horien ikasketen kalitatean daukan garrantzia.

Hain gutxi ulertzen da, eta are gutxiago justifikatzen, ikastetxeetako barne eta kanpo ebaluaziorako politika bat zehazterakoan batere aipamenik ez egitea ikastetxeek eskura dituzten baliabideek ikasleen emaitza akademikoetan daukaten eraginaren garrantziaz.

Aztertzen ari garen Oinarri Dokumentuan hezkuntza sistemaren kalitateaz eta haren ebaluazioaz plazaratzen diren proposamenak murriztaileak eta arriskutsuak dira, bidea irekitzen baitiote elitismoari eta ikastetxe eta hezkuntza sektoreen arteko lehiakeriari.

Hori guztia dela eta, uste dugu Oinarri Lege batek finkatuta utzi beharko litzukeela Hezkuntza Sistemaren eta Ikastetxeen kalitatea ebaluatzeko jarraitu beharreko printzipio orokorrak, kalitatearen oinarritzko adierazleak eta prozedurak, eta askatasuna eman beharko liekeela ikastetxeei horiek guztiak euren egoera eta testuinguruari egokitzeko.

## **9. Kapitulua. GURASO ETA IKASLEEN ESKUBIDEAK.**

Hauek dira gurasoek dituzten eskubideak euren seme-alaben hezkuntzari dagokionez:

- Seme-alabek hartzen duten hezkuntza kalitatezkoa eta Konstituzioan eta hezkuntza legeetan finkatutako helburuen araberakoa izateko eskubidea.
- Derizten ikastetxea aukeratzeko eskubidea.

- Seme-alaben eskola-errendimendu eta hezkuntza prozesuaren bilakaerari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

Hainbeste aldiz esan dugun bezala, familiek eta gurasoek berebiziko papera jokatzeko dute seme-alaben ikasketetan. Bere egunean Kontseilu honek azpimarratuta utzi zuen zelako garrantzia duen, ikastetxeetako lana eta emaitzak hobetzeari buruz, gurasoen partaidetzak, dela organo kolegiatuetan edo dela guraso elkarten bitartez, eta zalantzarik ez dagoela gurasoek euren seme-alaben hezkuntzan duten partaidetza eta igurikapenek zuzenean baldintzatzen dutela ikasleen arrakasta akademikoa.

Gauzei ikuspegi horretatik begiratu gero, bitxi kausitzen dugu eskubide eta eginbide batzuk desagertuta ikustea, esaterako: ikastetxeetako gobernu organoetan parte hartzeko eskubidea, seme-alaben hezkuntza prozesuetan modu aktiboan parte hartu beharrez irakasleekin lankidetzan aritzeko eskubidea, azterketak ikusi eta errebisatzeko eskubidea, gurasoen eta euren seme-alaben eskubideen defentsarako elkartzeko eskubidea, seme-alabak doazen ikastetxea ezagutzeko eskubide-eginbideak, eta abar.

Itxuren arabera, ez da nahi familiak ikastetxeetara azaldu daitezkeen eta, hortaz, ikaragarri moztu zaizkien dagozkien hezkuntza erantzukizunak; funtsean, Dokumentuaren 4. atalean agertzen diren sarrera-irizpide batzuek bete-betean kolpa dezakete, gorago aipatu ditugun arrazoiengatik, Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoaren (LODE) 4.b artikulua gurasoei euren seme-alabendako ikastetxea aukeratzeko aitortzen dien eskubidea, hain zuzen ere Kontseilu honen ustez familiek hartu behar duten erabaki garrantzitsuenetako bat dena. Ikastetxea aukeratu dutenean, familiek zorrotz begiratzen diote nola erantzun diezaizkien ikastetxe bakoitzak euren seme-alaben beharrez eta nahikariei, nola bermatzen duten kurrikulumeko edukien irakaskuntza eraginkorra, nolako segurtasuna (hitz hori bere adiera zabalean ulertuta) eskaintzen duten eta giza-harreman onak eskaintzen ote dituzten.

Horren guztiaren ondorioz, Kontseiluak ez du onartzen ikasle-gurasoek ikastetxetako bizitzan izan behar duten partaidetza murrizteko Dokumentuak egiten duen planteamendua.

Ikasleen eskubide-eginbideei dagokienez, hona Oinarri Dokumentuak ikasleei ezagutzen ez dizkien eskubideak: partaidetza eskubidea, elkartzeko eskubidea, bilera eskubidea, ebaluazio eta kalifikazio zuzenak izateko eskubidea, erreklamaziorako eskubidea, tratua zuzena izateko eskubidea, sexu, arraza, sinesmen, gaitasun eta abarregatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea...



## **11. Kapituluua. FONDO PUBLIKOEKIN SUSTENGATUTAKO IKASTETXEAK**

Onartzen da proposamenaren edukia, baina ikusten da falta direla ikastetxearen gobernuari buruz eta ikasleen onarpenari buruz (batez ere hezkuntza premia handiena duten ikasleena) ikastetxe horiek bete behar dituzten baldintzak. Faltan botatzen dira, baita ere, ezarrita dauden arauak eta hitzartutako baldintzak betetzeari buruz --baieta baldintza horiek ez betetzetik hel daitezkeen ondorioei buruz-- Administrazioak zehaztuta dituen irizpide, arau aurreikuspen eta kontrol prozedurak.

### **AZKEN BALORAZIOA**

Oinarri Dokumentu honek ez dauka funtsik Hezkuntza Kalitate Lege baten oinarria izateko. Izugarri murriztailea da. Ekarpen teoriko serio bat falta zaio eta proposatzen dituen aldaketa puntualak ez daude justifikatuta ebaluazio zorrotz baten bidez lortutako datuekin. Hezkuntza irakaskuntza bihurtzen duenez --ia alderdi kognitibo hutsetara mugatutako irakaskuntza mota bat, gainera—eta ikasleen garapen integralari buruzko aipamenik egiten ez duenez, finean ilunduta uzten ditu eskola instituzioaren helburuak. Era berean, ez du aukera aprobetxatzen hezkuntza sistema bere osotasunean aztertzeko eta irizpide berdinak ezartzeko fondo publikoekin finantzatutako hezkuntza sare bientzat.

LOGSE oinarri pedagogiko eta psikologiko handiko legea da, baina eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen ez badira inoiz ezingo du izan arrakastarik. Ez dirudi zuhurra denik aldaketa sakonak bultzatzea lege hori osorik aplikatzeko astirik edo baliabiderik eduki orduko eta lortutako emaitzak zorrotz ebaluatu aurretik. Kalitatezko hezkuntza baten erronka ezin muga daiteke ahaleginaren kulturaren indar gehiago edo gutxiago egitera. Helburu puskaz konplexuago eta handinahitsuagoa da, besarkamena eta integrazioa oinarritzko elementutzat dituen. Burutan ongi heltzeko, hau da, helburu hori lortzeko, baliabide asko behar dira --pertsonek, materialak eta prestakuntzazkoak.

Eufemismozko mozorro baten azpian (kalitatea, aukeren sistema, ahaleginaren erretorika...) Oinarri Dokumentu honek hezkuntzaren ikuspegi segregatzaile bat ezkututzen du. Hezkuntza aukeraketa sozialerako tresna bihurtzen da, "darwinismo sozialerako" tresna pribilegiatu bat. Kontrolak ugalduz eta ikasleak ibilbide ezberdinetan bananduz euren eskola-errendimenduen arabera, indartu egiten dira aukeraketa eta sailkapen sozialeko prozesuak. Dokumentuak holakorik hitzez hitz ez esanagatik, funtsean behar diren baldintza material, estruktural eta pedagogiko guztiak ezartzen ditu hezkuntza sistema bikoitz bat sortzeko.

Dokumentu guztian barrena ez da aurkitzen inolako neurririk hezkuntzaren kalitatea hobetzera eraman dezakeenik eta ez da inolako ekintzarik proposatzen kalitate hori hobetzen lagundu dezakeenik. Ikasketen exijentzia maila handituz eta azterketa eta kontrolak ugalduz hezkuntzaren kalitatea hobetu egin daitekeelako usteak oinarrian daukan argudioa –inoiz adierazten ez dena-- hauxe da: zenbat eta exijentzia maila handiagoa izan, ikasleak "ahalegin" gehiago egingo du. Arrazoibide ustela da maila berean jartzea azterketak, hezkuntzaren kalitatea eta eskolako ahalegina. Azterketen bidez posible da hezkuntzaren kalitatea neurtzea, ez ordea hobetzea. Gure ikasleen prestakuntza bermatu nahi duenak ez du zertan atramada edo oztopo handiagoak jarri behar haien bidean: salto egiten irakatsi behar die. Ikaslearen ibilbidea oztopoz josteak ikaslearen desmotibazioa ekar dezake (inor ez da ikasten hasiko arrakasta izan dezakeela uste ez badu) eta ikasketak bertan behera uztera eraman dezake. Bide horretatik ikasle gehiago geratuko da sistematik kanpo eta areagotu egingo da eskola-porrota.

Kalitatezko hezkuntza lortzeko oso bestelako bidetatik jo behar da. Funtsean, kalitate faktoreak indartu behar dira: ikasleen aniztasunari erantzuten lagunduko duten neurri pedagogiko eta didaktiko egokiak hartu behar dira eta baliabide materialak eta humanoekin hornitu behar da sistema. Ez dakite gehiago azterketa gehiago egiten duten ikasleek, gehiago eta baldintza hobeetan ikasten dutenek baino. Baina baldintza hobeak edukitzeko dirua behar da. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak kontrol gehiago jartzea proposatzen du, baina ez du arabera emendatzen hezkuntza kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren baliabideak.

Gauzak kontrolatzeko obsesioa eta zentralismo erabat zaharkitu baten aldeko apustua dira Dokumentu honen ezaugarri nagusiak. Komunitate Autonomoekin ez da hitz egin ez diagnostikoa kontsentsuatzeko eta ez hartu beharreko neurriak eztabaidatzeko. Ez dira batere kontuan hartzen Komunitate Autonomoen arteko ezberdintasun handiak, dela emaitzei dagozkienak edo dela Komunitate bakoitzaren eskola egiturari buruzkoak. Uniformitatea bilatzen da kosta ahala kosta, eta Komunitateei ez zaie beste paperik ematen baizik eta Estatuak zehazten dituen neurriak kudeatu eta fakturak ordaintzea. Arrisku gorria dago Dokumentu honetako proposamenak aplikatuz gero hezkuntza alorrera zabaldu dadin beste zenbait esparrutan nagusitzen hasia dugun joera zentralista itxia.

Kontseilu honek ondotxo ohartu duen beste kontu bat da zelako ezaxolakeria eta insentsibilitatea agertu dion Administrazio Zentralak, Oinarri Dokumentu hau idaztean, Genero Politikari, erabat ahaztu baitzaio nonbait hezkuntza sektorearen erdia baino gehiago (ikasleak, irakasleak, amak, andre zuzendariak eta sisteman ari diren gainerako andreak) emakumeak direla. Hortxe ikusten da inongo argien ez dutela aztertu ez kontuan hartu errespetu arloan dauden sentsibilitate ezberdinak, Komunitate batzuk hainbeste denboran lantzen eta asimilatzen ari garenak.

## **PROPOSAMENAK**

Euskadiko Eskola Kontseiluak uste du hezkuntzaren kalitatea segurtatzeko ahalegina ebaluazio zorrotz, anitz eta kontsentsuatuari uztartu behar zaiola. "Hezkuntzaren Kalitate-Legerako Oinarri Dokumentua" ez da hezkuntza sistemaren arazoak aztertzekeo abiapuntu onargarria.

Kontseiluak uste du, baita ere, proiektu honek izugarriko atzerakada ekarriko diola Euskadiko Eskola Kontseilu honek berak "Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzaren egoerari buruzko txostena (1994-2000)" izeneko dokumentuan aztertua daukan Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sistemari.

Horregatik, eta txosten honetan azaldu ditugun arrazoiak direla medio, Kontseiluak hertsatzen du Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eskatu diezaion Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioari atzera bota dezala "Hezkuntzaren Kalitate-Lege" proiektu hau.

Era berean, Kontseiluak animatu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza komunitate osoa jarrai dezan irmo kalitatezko sistema bat lortzeko borrokan, ahalegin kolektibo horretan aktiboki parte hartzeko duen eskubidea defendatzen, kritika konstruktiboa egiten eta helburu komun horri hurbiltzen gaituzten ekimenak abian jartzen.